


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko urtarrilaren 25a / 481. zenbakia



Dantzara plazara!

Erromeria dantzen ikastaroa antolatu du Moises Azpiazu taldeak


AROSTEGI ETXEA: UDALAK ERAKUSGELA BIHURTUKO DU • PILOTA: DEBA ARROKO TXAPELKETA



Ondarre, 9 ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 45 Faxa: 943 78 71 16



Etxeko altzariak
Egongelak
Logelak
Sukaldeak
Osagarriak
Horma-armairuak



ATREBENTZIAEZPADA/ Urtarrilleko aldaparik igarri dozu?




MARIA LUISA ALBERDI
73 urte

Baietz esango neuke. Nik uste dot beti somatzen dala. Kontuan euki bihar da Gabonak be tartian darella, eta fetxa horretan normalian baiño gastu haundixua egitten dala.



KONTXITA ARANBERRI
84 urte

Nik ez dot somatzen urtarrilleko aldaparik. Neretako hillabete normala da. Bakarrik bizi naiz, bai, eta betiko gastuak normalak izaten ditut urtarillian be.



OSCAR TERÁN
24 urte

Askorik ez dot igartzen. Normala, jende gehixenaren moduan. Batez be, Gabonak tartian darelako, eta erregaluak eta erosi biharra egoten dalako. Baiña bestela, normal.




BEGOÑA ROYO
43 urte

Nik ez dot igarri urtarrilleko aldaparik. Gaiñerako hillabetien modukua izan da hauxe be. Gabonak eta ez dot uste askorik eragin dabenik, nere kasuan, behintzat.



MARIAJE IBÁÑEZ
42 urte

Nik ez dot igarri. Beste hilla-betien antzerakua da. Gabonak, dendia daukatez, oso aproposak die nerezat, eta gero rebajak etortzen dienez, ba, horregaitik be bai.



FRANCISCO ETXARRI
67 urte

Beti igartzen da pixka bat urtarrilleko hillabetia. Badakizue, Gabonetan beti jaten da gehixago, eta Erregiak diela eta, ba, gehixago gastatzen da. Baiña, bueno, pixka bat.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK SEINALE BERRIA Bolurako bidean, Udal Biltegia baino pixka bat lehentxeago, irudiko seinalea aurki daiteke. Seinalea eskertzekoa da; aparkalekura sartzeko argibideak ondo asko ematen dizkigu gidarioi. Baina akats txikitxo bat du. Hain da txikia, gainera, ezen seinalea jartzeko ardua izan duena ere ez dela konturatu. Zein den? Gaztelania hutsean dagoela. (Dagokionari) /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

Erakusketa areto berria

Barrenkaleako baxu bat erosi du Udalak, birgaitu eta, besteak beste, erakusketa areto gisa erabiltzeko.

KIROLAK /10

Deba Arroko txapelketa

BKEko pilota sailak kadete eta senior mailan irabazi zion Arrasateko taldeari martitzenean.

KULTURA /12

Erromeria erraldoia

Moises Azpiazu taldeak egun osoko erromeria antolatzeke asmoz doako ikastaroak antolatu ditu.

IRAKURLEAKMINTZO

ESKERRIK ASKO ZUEN LAGUNTZAGATIK

Pasatu berri diren Gabonetan presoan alde jaso dugun laguntza guztia dela eta, ETXERAT-SENIDEAKen izenean eskerrak eman nahi dizkiegu gurekin lanean aritu direnei: dendak, tabernak, elkarteak eta euren lanaren emaitza eman zuten gazte batzuek osatutako taldea.

JOXE LAZKANO

BESTEKEESANA

“Bereziki gogoan daukat bi etxekoandreraren kasua. Familia ugaria zeukaten, eta Geografiako eta

Historiako ikasketak egin zituzten; urteak eman zituzten ikasketak egiteko, goizteko hostetatik zazpiak arte ikasten zuten, ordu horretatik aurrera etxeko lanak egin behar zituzten-eta. Muturreko kasua da, baina oso adierazkorra. Horrek esan gura du aukera bat dagoela ezintasunen bat dutenendako, edo erretiratu egin direla-eta zer egin ez dakitenendako, edo lana eta ikasketak uztartu gura dituztenendako. Eta aukera hori UNED da. UNEDek ez du kentzen, ezta jarri ere. Gu ez gaude inorekin lehian, ez EHUrekin ezta Mondragon Unibertsitatearekin ere. Guk eskaintza osatu egiten dugu.

VICENTE HUIGI
El Diario Vasco/02-01-18

BERAIEKDIÑO/ Iñaki Gabilondo



Kondairaren balioa

Kondaira zahar batek dio lehengo euskaldunak zuhaitz heldu baten inguruan batzartzen zirela; haritza omen zen batzar euskaldunen lekuko sakratua. Nik gizonezko sudurrandi, masail-gorri eta belarri-zorrotz batzuk imajinatzen ditut, txapela buruan dutela (emakumeek ezin baitzuten gisa horretako “gauza serioetan” parte hartu). Seguru asko, jauntxo aspergarri batzuk baino ez ziren izango. Hala ere, nahiago dut baserritar langileak zirela pentsatuz barne irrintzi txiki bat sortzea.

Kontuak kontu, kondaira hori gogoratzen dudanean, xehetasun bat guztiz deigarria egiten zait: euskaldunak bildu egiten ziren? “Horrek bai denporak horrek”.

Gaur eguneko euskaldunak (emakume zein gizon, zerbait behintzat lortu da...) Espainia edo Brusela aldera joan ohi dira. Auskalo nork plantxatutako gorbata miragarriekin

(gorbata batek mirariak egiten baititu) abiatzen den euskal delegazioa beharrezkoa den tokira; hori bai, ezinbestekoa, nahitaezkoa eta premiazkoa da indarkeriari muzin egitea eta kondenatzea (laster hori baino ez da izango demokrata izateko baldintza bakarra, beno, baita

etxe bat erostea ere, okupak terroristak baitira-ene, ene-).

Beraz, indarkeriaren aurkako jarrera garbia erakusten ez bada, elkarrizketatik kanpo gelditzen da, eta hori, gaur eta hemen, adar-jotze mingarria da,

gehienbat nazioarteko historia ikusita.

Hemen bakoitzak bere zuhaitza aukeratzen du eta geritze hotz eta grisean kokatzen du bere burua, besteak beste noiz etorriko zain. Gonbiteak, gutxi gorabehera, horrela dio: zure zuhaitzerako ura nahi duzu? Ba, emaidazu zure lurra. Galdera sinplea da: lurrik gabeko zuhaitzak zertarako behar du ura? Gero eskuak burura...

“Gonbiteak, gutxi gorabehera, horrela dio: Zure zuhaitzerako ura nahi duzu? Ba, emaidazu zure lurra”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea, 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereziar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zehitzak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 25
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
ZAPATUA, 26
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15
DOMEKA, 27
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15
ASTELEHENA, 28
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74
MARTITZENA, 29
PUY, Barrenkale 25. 943 76 16 87
EGUAZTENA, 30
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05
EGUENA, 31
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK
Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK
Taxiak. 943 76 19 50

UDALA
Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kirolegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK
Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK. 943 76 05 18
Udal euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

Santa Marina	Domekak: 10:30.
Domekak:	Labegarieta
11:30, 13:00.	Domekak: 11:00.
Zapatuak: 19:00.	San Lorenzo
Lanegunak: 19:15.	Zapatuak:
San Pedro	20:00.
Domekak:	Angiozar
09:30, 12:30.	Domekak:
Zapatuak eta	11:30.
lanegunak: 19:00.	Moja
Sierbak	Zaharrak
Lanegunak: 19:30.	Lanegunak: 8:00.
Osintxu	Mizpirualde
Domekak: 12:30.	Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 19:00.	Zapatuak: 17:30.
Elosu	Antzuola
Domekak: 10:30.	Domekak:
Ubera	09:00, 11:30.
Domekak:	Zapatuak eta
10:30.	lanegunak: 19:30.
San Juan	Uzarraga
Domekak: 11:00.	Domekak: 10:00.
Elorregi	

URTE-MEZAK
Santa Marina
Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.
San Pedro
Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

OHARRAK

1927AN JAIOTAKOAK
1927an jaiotakoen bazkaria urtarrilaren 26an. Zapatuan 13:30ean elkartuko dira txikiteoa egiteko, eta 14:30ean, bazkaria izango da Zumelaga jatetxean.

1956AN JAIOTAKOAK
1956an jaiotakoen afaria urtarrilaren 26an Txuringo jatetxean. Afaltzera autobusean joateko, frontoian elkartuko dira 20:30ean. Izena ematea: 943 76 48 63.

JOSEBA JAUREGIRI OMENALDIA
Bergarako odol emaleen elkarteko lehen presidente izandako Joseba Jauregiren omenezko bazkaria zapatuan, hilak 26, Azpeitxi jatetxean. Izena ematea 943 76 23 94 (Pedro Egaña)

ODOL ATERALDIA
Eguaztenean, hilak 30, odol ateraldia egingo da Seminarioan, 18:30ean. Odol emaleen elkarteak eskerak eman nahi dizkie azken odol ateraldira azaldutako guztiei eta barkamenak eskatu nahi ditu izandako eragozpenengatik.

HELDUEN HEZIKETA ESKOLA
Helduen Heziketa Eskolak 2001-2002 ikastaroko bigarren lauhilabeterako matrikula epea zabalik dagoela jakinarazten du. Argibideak: 943 76 44 52.

JARDUNEN AGENDA

JARDUERAK GAZTETXOENTZAT
Zapatuan eta domekan Kartzela 16:00etatik 20:00etara izango da zabalik gaxtetzkoentzat.

NUTRIZIO IKASTAROA
Jardunek nutrizio ikastaroa antolatu du, otsailaren 18tik aurrera. Izena ematea otsailaren 13ra arte zabalik. Argibideak: 943 76 08 19.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorenzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoleta (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERRIGARAN

Herri-barru historikoko fatxadak berri-tzeko lanak

Diputazioko Hirigintza eta Arkitektura sailak eta Debagoieneko Mankomunitateak, herri-barru historikoko etxeen aurrealdeak berritzeko plangintza abian jarri zuten duela 10 urte. Hasieran, plangintza San Martin plazara mugatzeko asmoa zegoen, baina herri-barru osora hedatu zen.



BERTAKO BERRAK/ Juan Martin Elexpuru

"Ozmiña"



Eguraldi edo haize hotza, hotz-hotza izan gabe.
-Egualdixa ozmiña, aize ozmiña, jarri da. Otz aundi aura ez, baiña otz.

ASTEKO FILMAK

'EL SEÑOR DE LOS ANILLOS'

ZUZENDARIA: PETER JACKSON. AKTOREAK: ELIJAH WOOD, IAN MCKELLEN, LIV TYLER, VIGGO MORTENSEN.

HARIA. J.R.R. Tolkien idazlearen trilogiaren lehenbiziko zatia. Aurtengo Oscar sarietan fabritoen artean dagoen filma.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egubakoitzean 22:30ean, zapatuan 17:00etan eta 22:30ean, domekan 16:30ean eta 19:45ean, eta astelehenean 19:30ean.

PUNTAZIOA: ●●●●●



HAUGIROA!

MINIMOA
Astelehena, 21 **1°C**

MAXIMOA
Domeka, 20 **16°C**

ASTEKO EURIA (l/m²)
17 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 16	8°C	5°C	3,5 l/m²
Eguena, 17	14°C	5°C	5,9 l/m²
Egubakoitza, 18	15°C	5°C	4,5 l/m²
Zapatua, 19	13°C	2°C	- l/m²
Domeka, 20	16°C	3°C	- l/m²
Astelehena, 21	15°C	1°C	3,1 l/m²
Martitza, 22	13°C	3°C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

'EL CIELO ABIERTO'

ZUZENDARIA: MIGUEL ALBALADEJO. AKTOREAK: SERGI LÓPEZ, MARIOLA FUENTES, EMILIO GUTIÉRREZ CABA.

HARIA. Miguel Albaladejo zuzendariak eta Elvira Lindo idazleak idatzitako komedia. Emazteak, Miguel izeneko psikiatra gaztea (Sergi López) utziko du, gertuko lagun baten ordez gainera. Gauzak okertzeko, amaginarrebaren bisita izango du.

TOKIA ETA ORDUA. Novedades artean. Eguenean, hilak 31, 20:00etan.

PUNTAZIOA: ●●●●●

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...

Masterreka, 8 BERGARA 943 76 53 12

GARRAIOAK ANDUZU TRANSPORTES

BERGARA 607 349 043



Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1 943 76 02 57
Toki Eder plaza 3 943 76 14 87
BERGARA

HIRIGINTZA/ Udalak 342.580 euro inguru (57 milioi pezeta) ordainduko dizkio Kutzari aretoaren truke

Kutzak Barrenkalean duen areto bat erosi, eta erakusketa areto bihurtuko du Udalak

MONIKA BELASTEGI

Udalak, Barrenkalean duen areto bat erosi dio Kutzari: Arostegi etxearen behe solairua eta sotoa. Erosketa hori helburu jakin batekin egin du Udalak; erakusketak antolatzeke, hain zuzen ere. Baina hitzaldietarako areto ere izango da.

Kutzak Arostegi etxean, Barrenkaleko zazpigarren zenbakian duen aretoa da Udalak erosi duena; etxearen behe solairua eta sotoa, hain zuzen.

Behe solairu horrek 220 metro koadro ditu, eta horixe da erakusketarako birgaitzeko asmoa dutena. Sotoak, berriz, 70 metro koadro ditu, eta biltegi gisa erabiliko dute. Victoriano Gallastegi alkateak esan duenez, Kutzari aretoa erosteko operazioa itxita dago, eta Udalak 342.580 euro inguru (57 milioi pezeta) ordaindu dizkio banketxeari aipatu aretoagatik.

ERAKUSKETA ARETOA

Alkateak azaldu duenez, oso erabilera jakina emango diote aretoari. Erakusketa areto bihurtuko dute, hau da, erakusketak antolatzeke erabiliko dute areto hori. Hala ere, beste gauza batzuk ere antolatu ahal izango direla aurreratu du Gallastegi alkateak, hitzaldiak, esaterako.

Areto hori erostea oso inber-



MONIKA BELASTEGI

Arostegi etxeke behe solairua erakusketetarako birgaitzearekin batera, XVI. mendeko ate tailatua ere egokituko dute

Arostegi etxeke behe solairua eta sotoa erosi ditu Udalak: lehenak, 200 m² ditu eta bigarrenak 70

Udalak 342.580 euro inguru (57 milioi pezeta) ordaindu dizkio Kutzari aretoagatik

Batez ere erakusketa areto izango da, baina beste erabilera batzuk ere izango ditu

tsio aproposa da alkatearen ustez. Gaur egun, Udalak duen erakusketa areto bakarra Errotalde jauregian (Kultura Etxea) dago. Hala eta guztiz ere, jauregia Jardun Euskara Elkartearen eskuetan lagatzea dago aurreikusita. Hori horrela, erakusketa areto gabe geratuko litzateke herria. Beraz, Errotaldeko erakusketa aretoak utziko lukeen hutsunea beteko du areto berriak.

HERRI ERDI-ERDIAN EGOTEAREN ABANTAILAK

Horrez guztiaz gainera, areto berria herri erdian egotearen abantailak ere azpimarratu ditu Gallastegi alkateak. Batetik, ikusleendako erosoagoa izango da bertara hurbiltzea, eta bestetik, Barrenkaleari bizitasun handiagoa emango dio. Horrekin batera, dagoen eskari zabalarari hobeto erantzuteko aukera ere emango duela azaldu du; bai Bergarako margolari, eskultore, argazkilaria eta abarren kasuan, baita kanpotik etortzen diren artisten kasuan ere.

Erakusketa aretoa nolakoa izango den ezin da aurreratu oraindik. Operazioa itxi berri dute, eta proiektua oraindik egiteko dago. Victoriano Gallastegi alkateak aurreratu duenez, baina, aretoaren birgaitze lanekin hasten direnean, Arostegi etxeak duen XVI. mende erdialdeko ate tailatua ere berritu egingo dute, seguruenik.

Etxe ondoko antenaren erradiazioa neurtzea eskatu du herritar batek

MONIKA BELASTEGI

Azken boladan telefonia mugikorrek antenek eragin ditzaketan gaitzen gainean kezka handia sortu da. Bergaran ere herritar batek etxe ondoko antenaren erradiazioa neurtzea eskatu du Udalean.

Bergaran telefonia mugikorrek antena bakarra dago herri barruan, Bidekurutzetako Banco Central Hispanoren gainean, hain zuzen ere. Besterik ere bada, baina horiek mendialderago daude, hirigunetik urrun.

Banco Central Hispano gainean dagoen antena hori duela bost urte jarri zuten. Orain, kezka sortu du inguruan bizi den herritar batengan. Kezka hori dela-eta, antenak igortzen duen erradiazioa neurtzea eskatu du Udalean.

Herritar horrek esan digunez, azken bolada honetan horre-

lako antenen gainean entzuten ari den guztiak eragin dio kezka hori. Haren esanetan, antenatik metro gutxi batzuetara bizi da, azken solairuan, gainera, eta, ondorioz, antenaren erradiazioa zuzenean jasotzen dute han.

Udaleko iturriek esan duteenez, aditu batekin harremanetan jarri dira, eta egun gutxi barru neurtzea egingo dutela adierazi dute. Ingurukoendako kaltegarria dela ikusiz gero, behar diren neurriak hartuko dituztela aurreratu du Victoriano Gallastegi alkateak.

BATASUNA LIZENTZIEN AURKA


Jesus Mari Garitano zinegotziak esan duenez, Batasunaren jarra beti izan da antena horiek jartzeko baimenak ez ematearen aldekoa, azken baten, ez zekitelako herritarren segurtasuna bermatua geratzen zen edo ez. Ildo horretan, Udalean ordenantza berezia proposatuko dutela gehi-

tu du; haren taldeak hegoaldeko herrialde guztietan egingo duen moduan.

Horrela, herritarren osasuna bermatuko duen ordenantza proposamena aurkeztuko dute; izan ere, uhin elektromagnetikoak igortzen dituzten antenen gainera araudian hutsune nabaria dago.

Batasunaren araudia Espainiako Gobernuak onartu berri duena baino zorrotzagoa da. Gobernuak onartutako dekretuak 450 mikrowatteko emisioak onartzen ditu zentimetro koadroko, eta Batasunaren ordenantzak, aldiz, 0,1 mikrowatt. Jesus Mari Garitanok esan duen bezala, herritarren segurtasuna bermatzeko.

Horrekin batera, antenok non kokatu ezin diren ere jasotzen du ordenantzak: etxebizitzetan, lokaletan eta garajeetan, herri barruan egon edo heritik kanpo badaude ere.



Bonba-auto mehatxua epaitegian

Martitzenean, epaitegi ingurua itxita izan zuen Ertzaintzak bonba-auto baten mehatxuagatik. Donostiako DYAn jasotako deiaren arabera, Gipuzkoako epaitegi batean, epaitegia zehaztu gabe, bonba-auto bat eztanda egitekoa zen 10:30ean. Ondorioz, Bergarako epaitegi ingurua itxi eta autoak miatu zituzten. Arriskurik ez zegoela ikusi, eta 11:00etan zabaldu zuten.

INDUSTRIA/ Garapen plana abian jarri eta hiru milioi eurotako inbertsioa egin dute

Itesak eta Felix Gabilondok Itesa Taldea eratu dute

MONIKA BELASTEGI

Itesa eta Felix Gabilondo enpresek Itesa Taldea eratu dute. Eratze horren arrazoien eta ondorioen berri emateko, prentsaurrekoa egitekoak ziren gaur goizean, Miguel Altunan, Itesa Taldeko ordezkariak eta Josu Jon Imaz Industria kontseilaria, besteak beste.

Automozioaren merkatuak ezarzen dituen erronkei aurre egin eta horiei erantzuna emateko sortu dute Itesa Taldea, Alex Barruso taldeko gerentearen hitzetan.

Itesak, 1967. urtean sortu zenetik hona, azalaren estalduren eta berregosteko tratamendu terminoan arloetan ibili da. Eta, bi arlo horietan automozioaren alorrari berari erantzun osoago eta egokiagoa eman nahian, Felix Gabilondo enpresa erostea erabaki zuten. Dagoeneko 2000. urtean hori gauzatu eta Itesa Taldea eratu zuten.

Hori horrela, zabalkuntza plana garatu eta hainbat inbertsio egin ditu Itesa Taldeak; 3.305.566 euro inguruko inbertsioa egin du, hain zuzen ere (550 milioi pezeta).

Horrekin guztiarekin batera, Itesa Taldea sortzeko arrazoiak beste oinarri bat ere badu, Alex Barruso Itesa Taldeko gerentearen esanetan: "Gure proiektuak garatzeko, kultura korporatiboa eranste beharra", hain justu ere.



Martxoan, ISO 14000 agiria jasoko du Itesa Taldeak.

PUNTAKO TEKNOLOGIA INBERTSIOEN XEDE

Aipatutako inbertsio horiek orain Itesa Taldeak dituen bi plantetan egin dira. Alex Barrusok azaldu digunez, gaur egun bi plantetan egiten diren tratamenduek puntako teknologikoa darabilte, eta merkatuak eskatzen dituen prozesu gehienak.

Berregosteko tratamendu terminoaren plantan, esaterako, edukiera handiko hidrogenozko labe berria dute, eta azalaren estalduretarako, berriz, hiru linea berri ezarri dituzte, ingurumen

exijentzia guztiak betetzen dituzten hiru linea berri, hain zuzen ere.

Barrusok azaldu digunez, inbertsio horien ondorio da gaur egun Renault etxearen aplikadoreen panelean egotea, kontuan izanda Estatu osoko hiru lantegi baino ezin direla aplikadoreen panelean egon. Horrekin batera, Aceraliarekin egindako kolaborazio akordioa aipatu du Barrusok. Eta langile kopuruan izandako gorakada ere bai. Itesak 1998an 19 langile bazituen, orain, Itesa Taldeak 43 ditu.

Anorexia eta bulimia lantzeko taldea sortuko dute ibarrean

MONIKA BELASTEGI

Euskadiko Anorexia eta Bulimiaren Aurkako Elkarateak eta Debagoieneko Gizarte Ongizate zerbitzuek gaixotasun hori joratzeko lantaldea sortuko dute. Interesa duen edonork har dezake parte.

ACABEk, Euskadiko Anorexia eta Bulimiaren Aurkako Elkarateak, eta Debagoieneko udal nagusietako Gizarte Ongizate zerbitzuek, Bergarako barne, gaixo horien familiartekoei laguntzeko zerbitzua sortuko dute.

Lantalde horretan parte hartzeko interesa duen edonork Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuekin jarri beharko da harremanetan, datorren martitzena baino lehenago.

Lantalde horiek hamabostean behin izango dira Arrasateko Monterron jauregian. Bi psikologok gaitz horiek jota dauden

gaixoak hobeto ulertzen erakutsiko die haien tartekoei, eta egoera konkretuetan zelan jokatu behar duten ere bai.

Lehenengo laguntza taldea otsailerako antolatzeko asmoa du ACABEk, eta, gauzak ondo badoaz, gaixoei laguntzeko zerbitzuek ere eskaintzen hasiko direla azaldu du Garbiñe Agirre elkarteak Gipuzkoako presidenteari, eta, behar izanez gero, egoitza irekiko dute Arrasaten.

DEBAGOIENEAN GAIXO UGARI

Ekimen hori berria ez den arren, lantalde hori ibarrean antolatzea bai da berria. Izan ere, ACABEk Donostian du egoitza, eta orain arte han jardun du.

Debagoienean gaixotasun hori duten kopuruari dagokionez, datu zehatzik ez dutela azaldu du Garbiñe Agirrek, baina ibarreko jende ugari hurbiltzen dela euren egoitzara; eta horregatik eskainiko dute hemen zerbitzua.

LABUR

Bergarako UNED zentroak Kultura Soziologiako mintegi iraunkorra sortu du

Mintegi horrek kulturaren alorrean diharduten ikasleen, irakasleen, profesionalen eta erakundearen heziketarako eta elkartrukeetarako sare iraunkorra gauzatzea du helburu. Hala, izaera teoriko nahiz praktikoko hainbat ekintza antolatuko dituzte. Mintegiak helburu nagusi bat du: kulturaren alorrean dabilzan edo lan egiten dutenen parte hartze iraunkorrari esker dokumentazio fondo sendoa eratzea. Fondo horren oinarriak zehaztu, garatu eta finkatzeko bidean, hitzaldi zikloa antolatu dute Donostia-ko Koldo Mitxelena Kulturunean, hilaren 22tik maiatzaren 22ra.

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



San Pedro 21 ZUBILLAGA 10
BERGARA ONATI
943 76 20 49 943 78 24 13

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12
BERGARA
943 76 03 57



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tel. 943 71 24 25
BERGARA

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tf. 943 76 27 93

REMENTERIA Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA
943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

ELKARRIZKETA

LEIRE JAUREGI/PSIKOLOGO KLINIKOA

“Edonork utz dezake tabakoa, berdin da zenbat erretzen duen eta erretzen egon den denbora”

MONIK BELASTEGI

Leire Jauregi Minbiziaren Kontrako taldeko kidea da. Astelehenean hasi eta sei astez, Udalak antolatutako ikastaroa emango du; erretzeari uzteko ikastaroa. Hona-koa kontatu digu tabakoaren eta berau uztearen gainean.

Nola planteatzen duzue ikastaroa?

Terapiak sei aste irauten du, astero ordu bat. Lehenengo lau asteetan murrizketa bilatzen dugu; batetik, zigarro kopuru gutxiago errez eta bestetik, tabako marka aldatuz, hau da, nikotina eta alkitran gutxiago duten marketara aldatuz. Eta horretarako hainbat estrategia erabiltzen ditugu. Laugarren eta bosgarren saioen artean erretzen utzi behar dute, eta seigarrenean berrerorpenei buruzko prebentzioa lantzen dugu.

Horrekin amaitu eta gero, jarraipena ere egiten dugu: hila-betera, hiruhilabetera, sei hilabetera eta urtebetera. Baina hori, bakarrik erretzen utzi dutenei. **Zenbatak uzten dio?**

Ikastaroa amaitzean gehienek uzten dute, %77 inguruk. Gero, berrerorpen gehienak hiru edo lau hilabeteren ondoren eta



MONIKA BELASTEGI

seigarren hilabetearen ondoren gertatzen dira.

Hain da zaila erretzeari uztea?

Bueno, batzuentzat bai eta beste batzuentzat ez horrenbeste. Egia da kostatu egiten dela. Pentsatu behar da adikzio bat dela eta mendekotasun fisiko eta psikologikoa daudela.

Fisikoa gainditu egiten da, gutxi gorabehera berrogeita zortzi orduan. Gehien kostatzen dena adikzio psikologikoa da; egoera atsegin zein desatseginetan tabakoaren laguntza bilatzen dugu. Hau da, ezkontzetan edo lagun giroan, zein heriotza baten aurrean edo susto bat izan dugunean autoarekin.

Badira hainbat metodo tabakoa uzteko. Txiklela, tabakoa, hainbat pilula. Benetan dira eraginkorrak ala dirua egiteko modua da?

Bai, funtzionatzen dute, eta ikastaroan zehar ere metodo horiek guztiak komentatzen ditugu, jende askok frogatu baititu. Bada, gainera, jende asko terapia

biak konbinatzen dituen: gure terapia eta pilulak, edo txiklela...

Nik eskatzen diedana da medikuaren kontrola, azken batean botikak baitira. Baina tabakoa uzteko modu horiek ere pertsonaren arabera dira eraginkorragoak ala ez. Batzuentzat ondo dihoana, beste batzuentzat ez hain ondo.

Esaterako, 55 urtez erretzen aritu den 75 urteko pertsona batek utzi dezake?

Bai. Berdin da zenbat erretzen den eta zenbat denboran zehar. Zure bizitzako parte oso inportantea den heinean nabari da. Askok esaten dute, adibidez ez dakitela zer egin eskuekin. Ohiturak aldatzea oso zaila da. **Maiz entzuten da tabakoa uztean urduritasuna handitzen dela, gizendu egiten dela... Zein dira sintomak?**

Sintoma batzuk egon badaude orokorrak direnak abstinentzia dela eta: irritablea, hogeita lau orduko gripeak, ezin da gauetan lo egin, kontzentrazio falta, loditu egiten da... eta beste batzuk ere badira. Loditzearen kasuan, tabakoak ez loditzen laguntzen du. Eta egia da uzten dugunean, metabolismoaren erreakzio batengatik bi-hiru kilo gizentzen dira, baina kontrolatuz gero, gehiagorik ez.



BERGARAN BULEGO BERRIA

10 URTEKO ESPERIENTZIA!

BERGARA Ibargarai 3. 943 76 97 97

LEGAZPI Santikutz 8. 943 73 05 25



TABERNA

Kruz Gallastegi, 1. BERGARA. 943 76 54 69

ARRANO



Taberna

Larunbat goizetan 10:00etatik aurrera **gosariak!**

Kruz Gallastegi BERGARA

AGOITZ

tapiz denda


Leizariako San Lorentzo, 25 BERGARA Tel.: 649 112 675

Agirrebeña



GAETEKEA

Ibarra kalea 2 • Bergara • Tf. 943 76 20 38



BERGARAN ERE DANBORRADA

Domekan eskaini zuen Bergarako Bandak 2002 urteko bere lehendabiziko kontzertua. Baina, aurtengo lehen kontzertua berezia izan zen; izan ere, zapatuan San Sebastian eguna zela-eta, Bandako hainbat kidek, sukaldari jantzi eta guzti, danborrak hartu eta danborrada propioa eskaini zuten. Horrela, kontzertuari ukitu berezia emateaz gain, frontoian bildutako jendea animatu zuten.



SAN ANTON JAIK

Joan zen egunean San Anton Abad eguna ospatu zuten Bergarako auzo horretan. Egunean meza ospatu zuten eta salda eta txorizoa jateko aukera ere izan zuten meza entzun ostean. Zapatuan ere izan zituzten ospakizunak: txikiteoa, mus txapelketa, suzko erroberak eta herri afaria, besteak beste. Majo ibili ziren, bai, auzotarrak eta bertara hurbildu zirenak!



Arzo honen inguruetan bada hainbat borroka baina benetan gazaki guzaki jertzen dioce arret. Laster egongo amon da larri zaborre guzti beriea horren kontrako irribidea omen da berriaketa, horrezake eta murriztu oso erraza da eta.

Gure nabara ondo zuzentzen zuten nabara murriztu. Dabandien ez da ondo zuzentzen zertzu kaskarrak. Ez utzi beki ondokoak, ondoak ondo beharrik, sate galarren lasterrik, gure nabe onak eta lasterrik. Murriztu beharrik murriztu da ta bato diragun indierik.

Arzo Guebara Indierik

2002

GIPUZKOAKO MENDIZALE
ETXERAKOZKOAK
Irteeraren Batzardea

SHERPA
MENDIZALEEN ELKARTEA
Bergararren Argazkiak
Irteeraren Batzardea

Gipuzkoako Foru Aldundia
Nabarrak eta Irteeraren Batzardea

Uztaila											Abuztua											Iraila											
Al	Az	Ar	Oi	Oi	Lu	10	11	12	13	14	Al	Az	Ar	Oi	Oi	Lu	10	11	12	13	14	Al	Az	Ar	Oi	Oi	Lu	10	11	12	13	14	
1	2	3	4	5	6	7					5	6	7	8	9	10	11					2	3	4	5	6	7	8					
8	9	10	11	12	13	14					12	13	14	15	16	17	18						9	10	11	12	13	14	15				
15	16	17	18	19	20	21					19	20	21	22	23	24	25						16	17	18	19	20	21	22				
22	23	24	25	26	27	28					26	27	28	29	30	31							23	24	25	26	27	28	29				
29	30	31																															

BERGARARREN ARGAZKIAK MENDIZALEEN EGUTEGIAN

Gipuzkoako Mendi Federazioak argitaratu duen egutegian bi bergararren argazkiak ikusi ditzakegu, Juanjo Nogueiras eta Jorge Murgiondorenak, hain zuzen ere. Egutegirako argazkiak aukeratzeko diapositiba lehiaketa bat antolatu zuen federazioak, eta aurkeztutako guztietatik zortzi aukeratu zituzten. Bi eratako argazkiek parte hartu zuten lehiaketa horretan: salaketa kutsua zutenak, eta naturarekin zerikusia zuten argazkiak. Bergararren argazkiak horman zintzilik ikusteko uztaile arte itxoin beharko dugu, baina ederrak dira, benetan, argazkiok.

AGENTEA

Ramon Maria Lili, 6-behea

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54

Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:

9.00-14.00 eta 15.30-19.30



IRAEGI
ASEGURUAK



IRRINTZI
kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26



SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

BERGARARRAK MUNDUAN

IGOR ALTUNA

32 URTE / INGALATERRAKO BOLTON HIRIAN BIZI DA

“Ingelesa ikasi eta beste bizimodu bat ezagutzearren alde egin nuen Bergaratik”

EDU MENDIBIL

Duela zazpi urte joan zen Ingalaterrara bizi izatera Igor Altuna: “Ingelesa ikasi nahi nuen, eta beste bizimodu bat ezagutzearren ere alde egin nuen Bergaratik. Hasieran gogorra egin zitzaidan bertara egitea, baina, hemen ziren Sevillako lagun batzuei esker, poliki-poliki konfiantza hartzen joan nintzen jendearekin eta hizkuntzarekin. Integrazteko modurik onena bertakoek egiten duten bizimodu antzekoa egitea izaten da, eta hori erabakigarria izan da hemen geratzeko”.

Helen lagunarekin bizi da (datorren uztailaren 13an ezkonduko dira), eta orain dela hilabete batzuetatik hona, Leire, Igorren arreba, haiekin dago. Manchestertik oso gertu dagoen Bolton hirian (300.000 biztanle ingurukoa) bizi dira, *Rusty* katemearekin. Konprimagailuak egiten dituen Ingersoll-Rand multinazionalean egiten du lan Igorrek, salmenten sailean. Era berean, enpresa zuzendaritza master bat egiten ari da gaur egun. Astean bi egunean joaten da eskolera.

H a n g o bizimoduaz zera diosku

Igorrek: “Ingelesak nahiko ondo bizi dira, eta, Euskal Herriarekin konparatuz, hemen askoz ere giza laguntza gehiago dago. Ikasteko ere aukera asko dago. Bestalde, ingelesak euskaldunak baino kontsumistagoak dira, eta aukera zabalagoa eta errazta-

“Euskal Herrian baino askoz ere giza laguntza gehiago dago Ingalaterran”

sun handiagoak daude gauzak erosteko orduan”.

Ingelesak, orokorrean, indibidualistak eta isilkorrak direla dio, “gizartea gizabakoan oinarritzen delako, eta ez familian, Euskal Herrian gertatzen den moduan. Hala ere, behin haiekin konfiantza hartuz gero, abegitsuak dira eta umore ona daukate”.

Bergarara urtean bizpahiru aldiz etortzen dira eta, familia eta lagunez gain, janaria eta hementa go eguraldia sumatzen ditu faltan Igorrek.



MINGAINARITIRAKA



Eva Arevalillo

RENTERI TINTORERIXAKUA

Evak oin dala sei urtetik dauka Renteri tintorerixia, Ana ahizpiakin batera, baiña birraittonak oin dala 80 bat urte irikittako dendia da. Plantxan harrapau dogu dendan.

Zelatan zabaldu ziñuen tintorerixia? Gure birraittonak iriki zeban, oin dala ixa 80 urte; eta lan kontua ez zeguanez bat be ondo, dendia berritu eta geuk kargua hartzia erabaki giñuan.

Nundik dator Renteri izena? Birraittona Errenderikua zan, eta dendaren izena La Bergaresa zan arren, danek *Renteri* esaten zotsen dendiarri. **Ze erropa ekartzan dotsue gehixenbat?** Gehixenbat prakak eta neguko berokixak. Baiña hori urtaruaren arabera izaten da.

Zein izaten da lan zailena? Pixka bat hondatuta daren berokixak plantxatzia.

Garbitzeko truko edo sekretoren bat esango ziñuke? Ura eta jaboia die edozer gauza garbitzeko onena.

Zure lanetik ze gustatzen jatzu? Jentiakin harremanetan garela, eta ez isolatuta; zelabait, kalia garela.

Aldatzekotan, zertan lan egin nahiko ziñuke?

Ez dot holakorik planteatzen, errealista naiz; ordutegi hobia daukan lanen bat nahiko nuke, igoal.

Ze moduz moldatzen zarete euruekin?

Ondo, ez dogu aparteko arazorik izan. **Asteburu baterako plan ideala?** Kanpuan afaldu, zinera jun, kostara egun pasa jun eta, batez be, deskantsatzia. **Urte berrirako markau dozu helburraren bat?**

Ez; gauza asko egitteko erabakixa hartuta be, ez dittut egitten, hortaz...

AINTZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA/ Martin De Pedro

NEPAL / 1999ko uztailan

Aitor Rementeria eta biok joan ginen Nepalera; hiru aste pasatzera joan ginen. Bidaia hura abentura gisa hartu nahi genuen; horregatik, hegazkineko txartelak hartu eta ez genuen alde aurretik beste ezer antolatu. Hala ere, argi geneukan zer nahi genuen. Joan aurretik bagenezkan herrialde hari buruzko hainbat erreferentzia. Gainera, xarma berezia zeukan Nepalek guretako. Kultura berezia dauka, besteak beste, Indiaren eta Txinaren artean dagoen herrialdea delako. Eta, bestetik, bi erlijio daude, hinduismoa eta budismoa.

Hegazkinean Katmandura joan ginen, Nepaleko hiriburua. Egund pare bat egin genituen hiriburuan, eta handik Annapurnako tourra egitera joan ginen. Gidari bat kontratatu eta Annapurna inguratzan duen ibilaldia egitera joan ginen; 200 kilometro ditu, eta hamalau egunean egin genuen ibilaldi hori. Oso interesgarria izan zen tour hori; alde batetik, oso mendizaleak garelako Aitor eta biok, baina, bestetik, mendialdeko herririk mordo bat ikusi genuelako eta hango jendea ezagutzeko aukera eman zigulako. Nik garrantzi handia ematen diot jende berria eta hainbat kulturatako jendea ezagutzeari. Anekdotak kurioso bat ere izan genuen: tourra egiten ari ginela, herririk batera iritsi ginen, eta hango denda batera sartu ginen erosketa batzuk egitera. Denda hartan bazegoen liburu bat, non ibilaldia egiten zuen jendeak bere esperientziak idazten zituen bertan. Eta hara non aurkitzen dugun bergarar baten idatzia. Sorpresa polita izan zen hura.

Tourra egin ondoren, Katmandura itzuli ginen; ikustea merezi duen hiria, duda barik. Dena dela, mendialdean baino pobrezia handiagoa ikusi genuen hiriburuan.



“Xarma berezia zeukan Nepalek guretako”

“Annapurnako Tourra egin genuen; 200 kilometro 14 egunean”

AINTZANE IRIZAR



Annapurna mendia zeharkatzen duen ibilaldia egin zuten.

EDEL TAPIZDENDA

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

Dixula

BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32 BERGARA Tf. 943 76 44 95

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32



Argazkian, Debarroko Pilota Txapelketan ari diren bikote bergararrak Reyes Azkoitia entrenatzailearekin.

PILOTA

Senior mailako bikotea indartsuen Debarroko Pilota Txapelketan

Bergarako pilotariak Arrasatekoen kontra jokatu zuten martitzenean

EDU MENDIBIL

Bergara KEko pilotariak Debarroko Pilota Txapelketaren bigarren jardunaldia jokatu zuten martitzenean Arrasatearen aurka, Bergarako Udal Pilotalekuan. Kadeteek eta seniorrek irabazi egin zuten, eta gazteek, aldiz, galdu egin zuten euren partidua.

Debarroko Pilota Txapelketaren 55. ekitaldian Bergara goiko aldeko multzoan dago, Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza eta Olalde (Antzuola) taldeekin batera. Lehendabiziko jardunaldian

Eskoriatzan jokatu zuten bergararrak: kadete mailan galdu egin zuten (22-7); gazte mailako bikoteak ere galdu egin zuen (22-14); eta seniorrek, berriz, 11-22 irabazi zioten Eskoriatzako bikoteari.

KADETEAK ETA SENIORRAK NAGUSI

Martitzenean, bergararrak arrasatearren kontra neurtu zituzten indarrak. Mikel Salegik eta Ibai Altunak osatutako kadete mailako bikoteak 22-8 irabazi zion Arrasateko bikoteari; Beñat Iñarra eta Asier Larrañaga gazteek 4-22 galdu zuten; eta, azkenik, Ander Muguruzak eta Igor Gutiérrezrek osatutako senior mailako

bikotea 22-16 nagusitu zitzaion Arrasateko bikoteari. Reyes Azkoitia entrenatzailearen arabera, "seniorrek dituzte aukera gehien finalerdietarako sailkatzeko".

Martxoaren 12ra arte, ligaxakako partiduak jokatuko dira, joan-etorrian. Gero, kategoria bakoitzeko bikote bi sailkatuko dira finalerdietarako. Debarroko beheko aldeko multzoan beste horrenbeste gertatuko da.

Aurten, Bergara KEren sorreraren urrezko ezteiak beteko direnez, finalak Bergarako Udal Pilotalekuan jokatuko dira, datorren apirilaren 7an.

FOTOKIROLA



IÑIGO ZAITEGI

Lehen erregionalak Elgoibarri irabazi

Lehen erregionaleko Bergara futbol taldeak 4-1 irabazi zion zapatuan Elgoibarri Ipintzan. Markos Alonsok eta Mikel Oterok bina gol egin zituzten mahoneroendako. Lehen zatia bana-ko emaitzarekin amaitu zen. Karlos Lasak zuzentzen duen taldea sailkapeneko 11. tokian dago. Astebukaeran Deban jokatuko du, hango Amaiak-Bat taldearen aurka.

TXIRRINDULARITZA

Lizentziak berritzeko epea zabalik

Lokatza Ziklismo Eskolak aurtengo federatuen lizentziak berritzeari ekin dio. Interesatuek Lokatzak San Martin plazan duen bulegora jo behar du, eguenetan, 19:30etik aurrera. Argibideak: 619 73 95 07 (Mikel Larrañaga).

ESKUBALOIA

Aranzadiko infantil taldea Urolako txapelkun

Aranzadi Ikastolako infantil mailako mutilen eskubaloi taldeak Urola ibarreko txapelketa irabazi du. Zapatuan jokatutako finalean 11-10 irabazi zioten bergararrak Zumarragako La Salle taldeari, luzapenean. Iban Orgaz eta Ruben Sánchez ditugu taldeko entrenatzaileak.

LABEGARAIETAKO FUTBITOXAPELKETA

EMAITZAK

A MULTZOA	
Bar Ugarte-Amilotx.....	7-0
Komando Piperrak-Eri.....	4-10
Torrekua-Kanpazar.....	6-9
Mongatxurak-Bicíp. Igartua.....	14-6
Bar Ganbara-A Ze Flaxa.....	5-3
Eri-Bar Ganbara.....	5-2
Komando Piperrak-Mongatxurak.....	2-4
Kanpazar-Bar Ugarte.....	3-8
B MULTZOA	
Bar Bedarreta-Txipiron.....	10-5
Irubide-Artakale.....	9-2
THT-Aterpe.....	4-2
Bar Canalejas-Vacalouras.....	3-3
C MULTZOA	
Dedo Pafarru-Pagomendi.....	8-3
Argandolas-Bayer.....	4-3
Errotagain-Patxaran.....	7-1
Ortzi-Timofonika.....	8-4

SAILKAPENA

A MULTZOA		P	J
1. Mongatxurak.....	33	15	
2. A Ze Flaxa.....	30	13	
3. Bar Ugarte.....	28	13	
4. Agirrebeña jatetxea.....	23	14	
5. Eri.....	22	14	
6. Kanpazar.....	19	14	
7. Torrekua.....	18	14	
8. Komando Piperrak.....	17	15	
9. Bar Ganbara.....	7	12	
10. Amilotx.....	4	12	
11. Bicíprecisión Igartua.....	4	13	
B MULTZOA		P	J
1. Bar Bedarreta.....	37	13	
2. Bar Canalejas.....	26	13	
3. Aterpe.....	24	13	
4. THT.....	20	13	
5. Irubide.....	19	13	
6. Vacalouras.....	19	13	
7. Amoskibar.....	12	12	
8. Txipiron.....	11	13	
9. Artakale pizzeria.....	9	13	
10. Etengabe.....	3	12	
C MULTZOA		P	J
1. Errotagain.....	33	11	
2. Artusamak.....	25	11	
3. Dedo Pafarru.....	22	12	
4. Bayer.....	21	13	
5. Argandolas.....	19	12	
6. Pagomendi.....	15	11	
7. Ortzi.....	10	12	
8. Patxaran.....	6	11	
9. Timofonika Team.....	3	12	
10. Bildurbarek.....	0	0	

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Agirrebeña-Amilotx. **Torrekua**
 10:30: Eri-Torrekua. **Amilotx**
 16:00: Bayer-Ortzi. **Kanpazar**
 17:00: Kanpazar-A Ze Flaxa. **Ganbara**
 18:00: Bar Ganbara-Bar Ugarte. **Pagomendi**
 19:00: Patxaran-Pagomendi. **Vacalouras**
 20:00: Vacalouras-Artakale. **Patxaran**

DOMEKAN, BARRUAN

9:30: Artusamak-Errotagain. **Eri**
 10:30: Eri-Kanpazar. **Artusamak**
 16:00: A Ze Flaxa-Amilotx. **Dedo Pafarru**
 17:00: Dedo Pafarru-Argandolas. **Monga**
 18:00: Mongatxurak-Torrekua. **Bic. Igartua**
 19:00: Bicíp. Igartua-Bar Ganbara. **K. Piper**
 20:00: Bar Ugarte. **K. Piperrak. Bar Ganba**

GORA ETA BEHERA

- VACALOURAS ETA JUAN CARLOS RODRIGO IRUBIDEKO ATEZAINA**
Vacalouras taldeak partidu ona egin zuen aurreko asteburuan Bar Canalejas taldearen aurka (3-3). Bestalde, antolatzaileen arabera, Juan Carlos Rodrigo Irubideko atezaina txapelketako onenetakoa dugu.
- A ZE FLAXA ETA PAGOMENDI**
A Ze Flaxa taldeak A multzoko lidertza galdu du, azken jardunaldian, ustekabean, Bar Ganbararen aurka galdu eta gero (3-5). C multzon, bestalde, Pagomendik 3-8 galdu zuen Dedo Pafarru taldearen kontra.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Beasain
 Bigarren mailako kadeteak. Zapatua. 12:00. Ipintza.
 Bergara-Aloña Mendi
 Infantilak. Zapatua. 16:00. Ipintza.
 Bergara-Zumaiako
 Ohorezko maila. kadeteak. Domeka. 10:30. Ipintza.
 Bergara-Ordizia
 Ohorezko mailako gazteak. Domeka. 12:00. Ipintza.

ESKUBALOIA

Bergara-Arrasate
 Senior mutilak. Domeka. 12:15. Kiroldegia.

PILOTA

Gipuzkoako txapelketa
 Bergara-Lagunak III (infantilak)
 Udaberriko txapelketa
 Bergara-Lazkao (2. mailako seniorrak)
 Bergara-Euskal Jolas (Lehen maila. seniorrak)
 Egubakoitzen, hilak 25, Udal Pilotalekuan, 19:00etan.
 Udaberriko txapelketa
 Bergara-Añorga (Lehen mailako kadeteak)
 Bergara-Aretxabaleta I (Lehen mailako gazteak)
 Domekan, hilak 27, Udal Pilotalekuan, 12:00etan.

EMAITZAK

FUTBOLA

Bergara 1 Elgoibar 1 (Preferente maila)
 Bergara 4 Elgoibar 1 (Lehen erregionala)
 Bergara 4 Elgoibar 6 (Neskak)
 Kostkas 2 Bergara 5 (Ohorez. gazteak)
 Bergara 1 Orioko 3 (Lehen mail. gazteak)
 Añorga 5 Bergara 0 (Ohorezko m. kadeteak)
 Soraluze 6 Bergara 1 (2. mailako kadeteak)
 Elgoibar 0 Bergara 0 (Infantilak)

ESKUBALOIA

Urola 31 Bergara 32 (Senior mutilak)
 Urola 23 Bergara 13 (Kadete mutilak)

SASKIBALOIA

Bergara 68 Atletico San Sebastian 72
 Gazte mutilak
 Oñati 61 Bergara 37
 Kadete mutilak

PILOTA

Gipuzkoako txapelketa
 Bergara 18 Antzuola 10 (Infantilak)
 Udaberriko txapelketa
 Tolosa 22 Bergara 8 (2. mailako kadeteak)
 Amezketza 22 Bergara 11 (Lehen mail. kadeteak)
 Añorga 22 Bergara 8 (Gazteak)
 Goierri 22 Bergara 11 (2. mailako seniorrak)
 Añorga 12 Bergara 22 (Lehen mailako kadeteak)



Barrenkalea 35. Tf. 943 76 29 46



Bonaventure • Pepe Jeans • Diesel • Levi's • Dockers • Zone • Daneva • Speater House


%30 eta %50



Irala 5. Tf. 943 76 27 16



2002/2003 IKASTURTEA



San Roke Auzoa, 1
ELGOIBAR
Tel. 943 744 132
Faxa.943 744 153
ingenieria@fmh.es
www.fmh.es

Makina Erremintaren Institutuak aukera ezin hobea eskaintzen dizu:

TXANDAKAKO ENPRESA INGENIARITZA

- ◆ **Enpresarekin lanean** garatutako lanbide proiektua
- ◆ **Lan-kontratua** prestakuntzaren lehen egunetik
- ◆ **Emaitza erakargarriak:** tituludun **%100ek lanean** dihardute eta horietatik %25ek zuzendaritzako ardurak daramatzate

BILERA INFORMATIBOA

- URTARRILAREN 30ean, asteazkenean, bilera informatiboa egongo da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera-baldintzak azaltzeko: 18:30ean Makina Erremintaren Institutuko (IMHko) instalazioak bisitatuko ditugu eta 19:00etan bilera informatiboa hasiko da.



cesi aquitaine
poitou-charentes





BUA, JUANITO IDIGORAS FONDOA (MOLDATUA)

Duela urte batzuk egiten zen moduan, kaleko erromeriak bultzatzea du helburu ekimenak.

DANTZA/ Doako ikastaroak antolatu dituzte, erromerian jende gehienak dantzatzeko

Moises Azpiazu taldea erromeriak bultzatu nahian

MONIKA BELASTEGI

'Dantzara plazara' erromeria erraldoia antolatzen ari da Moises Azpiazu dantza taldea. Erromeria hori maiatzaren 11n izango da. Egun hori ahalik eta zabalena izateko, doako dantza ikastaroak antolatu ditu dantza taldeak. Izena emateko epea zabalik dago.

Egun osoko erromeria izango da Dantzara plazara, eta oso helburu zehatza du: erromeria dantzak bultzatzea, hain justu. Hori antolatzeko, lanean ari dira Moises Azpiazu dantza taldea, Abarka elkarte eta Gipuzkoako Dantzarien Biltzarra. Eta erromeriarren egun handi horrek bat egingo du Bergaran egiten den hamabost urtez azpiko Euskadiko Dantza Suelto Txapelketaren 25. urteu-

rrenarekin. Horixe da, hain zuzen, antolatzaileek erabili duten aitzakia *Dantzara plazara* antolatzeko.

ERROMERIA IBILTARIA

Erromeriak suspertzeko asmoa duela hiru urte mamitu zen Gipuzkoako Dantzarien Biltzarrean. Proiektua oraindik guztiz biribildu barik dago. Baina asmoa honakoa da: urtean behin Euskal Herriko herri batean ospatzea *Dantzara plazara*. Horretarako, zazpi probintzietako Dantzarien Biltzarrak lankidetzan arituko dira erromeria ibiltari hori antolatu eta aldi bakoitzeko non egingo den erabakitzeke.

Proiektua oraindik ere gauzatu gabe dagoen arren, Bergaran egin egingo dute Dantzara plaza. Hain zuzen, dantzarien biltzarrei bultzadatxoa eman eta

proiektua benetan gauza daitekeela adierazteko. Aurretiaz bada horrelako esperientzia bat: Errenteriarren kasua. Han Gipuzkoako Txapelketaren 50. urteurrena ospatu behar zuten, eta Gipuzkoako Dantzarien Biltzarreko ideia hartuz, erromeria erraldoia antolatu zuten. Arrakasta izugarria izan zuen. Jende ugari hartu zuen parte ekitaldian.

DANTZA IKASTAROA

Bergaran ere ahalik eta jende gehienak parte hartzeko, doako dantza ikastaroa antolatu du Moises Azpiazu dantza taldeak. Saioak astegunetan eta zapatuetan izango dira, eta orduak eta egunak izena ematen dutenen arabera antolatuko dituzte. Izena kultura etxean eman daiteke edo telefono hauetan: 943 761540 eta 943 779158.

Udazken Kulturalean 8.300 lagun inguruk hartu dute parte

MONIKA BELASTEGI

Kultura batzordeak Udazken Kulturalean balorazioa egin du. Orokorrean balorazio positiboa egin dute eta, batez ere, Udaleko osoko bilkuren aretoan egindako ekitaldiak azpimarratu dituzte.

Udazken Kulturalea amaitu ondoren, Kultura batzordeak haren balorazioa egin du. Orokorrean balorazio positiboa egin dute urria, azaroa eta abendua osatzen duen Udazken Kulturalean gainean. Ekitaldi guztiak kontuan hartuta, 8.300 lagun inguruk har-

tu dute parte Udazken Kulturalean, eta Kultura batzordekoek azpimarratu egin dute osoko bilkuren aretoko ekitaldiek izan duten harrera ona.

Bestalde, ekitaldi kopuruari dagokionez, hamabost kontzertu izan dira, hiru antzerki, dantza saio bat, hitzaldi bat, bost erakusketa, bi kalejira, bertso jaialdi bat eta zinekluba. Horri guztiari Gabonetan egindako ekitaldiak gehitu behar zaizkio, besteak beste, Olentzero, Erregeak eta jolasparkea. Horren guztiaren gastua ia bost milioi pezetakoa izan da. Eta kopuru horri Gabonetako argiek balio izan duten

hiru milioi pezetak gehitu behar zaizkio.

HERRIKO TALDE ETA ELKARTEAK

Kultura batzordeak azaldutakoaren arabera, Udazken Kulturalean ikusi ahal izan ditugun ekitaldietako batzuk herriko taldeek antolatu dituzte. San Joxepe elkarteak, esaterako, Aukeran dantza taldea ekarri zuen, eta Jardunek bertso jaialdia antolatu zuen.

Horrekin batera, herriko taldeek ere euren saioak eskaini dituzte, hainbat musika talde edota Forum Cinematogaphek, besteak beste.

KULTURAPILULAK

Jardunek antolatutako nutrizio ikastaroan izena emateko epea zabalik dago

Iaz egin bezala, aurten ere, nutrizio ikastaroa antolatu du Jardun euskara elkarteak. Ikastaroa otsailaren 18an hasiko da eta otsailaren 28ra arte iraungo du. Astean bi egunean izango da, astelehenean eta eguenean, 19:00etatik 20:30era. Ikastaroa Mireia Alberdi dietistak emango du.

Izena emateko azken eguna otsailaren 13a izango da, eta Jardun elkartearen edo 943 760819 telefonoan eman daiteke izena. Prezioa, bazkideendako, 12 euro da eta gainerakoendako, 15 euro.

RIP musika taldeak kontzertua egingo du gaur gauean Jam aretoan

Arrasateko RIP musika talde ezagunak kontzertua egingo du gaur, gaueko bederatzietatik aurrera, Jam aretoan. Euskal punk eta rockean aitzindari izan den talde horrekin batera beste hiru talde ere arituko dira gaur Jam aretoan, Flyshit, Supercools eta Goiko-Rock taldeak, hain zuzen ere, guztiak Bergarako musika taldeak, gainera.

Gaur gaueko emanaldi horrek bat egiten du San Juan Bosco edo Santo Tomas egunarekin, hau da, Bergarako gazteek horren gogotsu ospatzen duten ikasleen egunarekin.

Manu Muniategiandikoetxeak Galizian irekiko du erakusketa urtarrilaren 30ean

Santiagoko Auditorioan irekiko du Manu Muniategiandikoetxea artista bergararrak erakusketa. Datorren eguaztenean inauguratuko dute erakusketa eta Aste Santura arte egongo da ikusgai. Bergararrarekin batera, Gure Artea saria jasotako beste bi artistaren lanek osatuko dute erakusketa. Muniategiandikoetxearen hogeita hamalau marrazki, hiru eskultura txiki eta bi tamainatako zazpi margolan egongo dira ikusgai.



Azur eta Diego Galanen lanak ikusgai

Azur eta Diego Galanen argazki eta artisautza lanen erakusketa dago ikusgai Artekalea pizzerian. Argazkietan hainbat paisaia eta irudi abstraktu ikus daitezke. Artisautza lanei dagokionez, egurrez egindako hainbat taila eta eskultura ikus daitezke. Erakusketa hil amaiera arte egongo da ikusgai.

Bestalde, Nahikari tabernan ere bada beste erakusketa bat. Mila Garmendia pintore arrasatearraren olioak, hain zuzen ere. Eta erakusketa hori hil amaiera arte egongo da ikusgai.

/MONIKA BELASTEGI

E, TXO!

KUADRILLATEGIREKIN, SEXU IKASTAROA

Hitzordua, asterokoa, izango da: zapatu arratsaldean, 15:30ean, Udal Euskaltegiko egoitzan, Zabalotegin. Gaia, berriz, berria: sexua. Denoi, eta bereziki gazteei, interesatzen zaien gaia. Sexuari buruzko ikastaroa hasiko dute Kuadrillategiko gazteek bihar, zapatua. Ikastaro horretan sexuari buruz dauzkaten zalantza eta galdera guztiak argitzeko aukera ederra izango dute.

GAZTETXEKO ZOZKETAKO ZENBAKI SARITUA

1.086 zenbakia izan da Bergarako gaztetxeak antolatutako zozketako zenbaki sariduna. Hortaz, badakizue, ondo begiratu zuen txarteletan, gazte-txean dago-eta zain bizikleta eder bat. Dena dela, zenbaki hori azalduko ez balitz, 601 zenbaki-dun txartela duenarendako izango litzateke bizikleta.

GAZTERIAREN ERRETRATUA

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 1999 eta 2000. urteetan egindako gazteen azterketa soziologikoren emaitzak argitaratu ditu. 15 eta 29 urte bitarteko gazteei egindako hainbat inkestaren emaitza da Gazteriarren Erretratu hori. Txosten hori lortu nahi izanez gero, honako web orri honen bitartez egin dezakezu eskakizuna: www.euskadi.net/estudios_sociologicos.

KONTZERTUA BERTAN BEHERA

Zapatu gauerako gazte-txean iragarrita zegoen kontzertua bertan behera laga dute. Discipulos de Dionisos eta Barley Juice taldeek eskaini behar zuten kontzertua.

GUREGAIK/ GAZTEAK ETA ETXEBIZITZA

Etxebizitzaren egoera aztertzen dihardute

AINTZANE IRIZAR

Etxebizitzaren inguruko talde bat sortu dute herriko gazte batzuek. Besteak beste, inkestak egiten ari dira, herritarrek etxebizitzaren arazoak duten iritzia eta proposamenak jasotzeko.

Herriko hainbat tabernatan jarri dituzte inkesta orriak. Galderei erantzun, eta orria tabernariari eman behar zaio. Horrela, herritarrek etxebizitzaren gainean dituzten iritzia eta proposamenak jaso, eta etxebizitzaren gainean jendeak dauzkan helburuak jakin nahi dituzte.

Euren helburua da 500 inkesta jasotzea, gero azterketa sozio-

logikoa egin ahal izateko; dena dela, lehendabiziko 500 inkestak erraz lortzen badituzte, 1.000 lortzera abiatuko dira.

Etxebizitzarekin lotutako hainbat galdera egiten dituzte inkestetan: hala nola, ze egoeratan eta non bizi den jendea, zenbat ordaintzen duten errenta edo kreditua, herrian dauden ehunka etxe hutsekin zer egingo luketen, zeinek bermatu beharko luketen etxebizitza eskubidea...

Datuak eskuetan dituztenean, Udalarekin harremanetan jartzeko asmoa ere badute; izan ere, gazte horien ustez, Udalak badu zeresanik etxebizitzaren arazoan.

Hortaz, badakizue, tabernetan dituzte inkestak eta zuen iritzia emateko aukera.



ARTXIBOA

Etxebizitzaren gainean jendeak duen iritzia jakin nahi dute.

LOTSABARIK/ Aitor Jaso

“Realak galtzeak izugarri amorratzen nau”

AINTZANE IRIZAR

Izugarri gustatzen zaizkio motoak Aitorri, eta halaxe etorri zaigu jarritako hitzordura ere, motorrean, kasko eta guzti. Futbolzale amorratua ere bada, Realarekin sufritzen ari diren horietakoa.

• **Txikitán, zer izan nahi zenuen?**

Futbolaria izan nahi nuen. Betidanik gustatu izan zait futbola, baita orain ere.

• **Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?**

Oraindik ezkontzeke, okin moduan lanean eta nahiko pobrea.

• **Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriz?**

Nire logela jasotzeko; nik logela ondo ikusi arren, eurek desordenatuta ikusten dute.

• **Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.**

Ez daukat inolako taktikarik; ordua jartzen didaten arren, esandakoa baino geroago joaten naiz beti; ez naute askorik kontrolatzen.

• **Bizitzan zeri ematen diozu lehenatsuna?**

Diruari; diru barik ezin da ezer egin.

• **Zure bertute bat?**

Jan eta jan egiten dut, baina ez naiz gizentzen, nahi adina jaten dut.

• **Eta hutsune bat?**

Futboleant ez naizela ona; niretako hori garrantzitsua da, futbolaria izan nahiko nuke-eta.

• **Zerk amorratzen zaitu?**

Realak galtzeak; azkenaldi honetan nahiko amorratuta nabil.

• **Zure gorputzeko atalik gustukoena?**

Beso politak dauzkat.

• **Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?**

Begiei.

• **Zer egiten duzu seduzitzeko?**

Besteari jatorra iruditzea da kontua, eta besteari zelakoa naitzen erakustea.

• **Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?**

Ez dut uste daukadanik.




ADINA: 15 urte • **IKASKETAK:** DBH • **ZALETASUNAK:** Motoak eta kirola egitea • **LIBURU BAT:** ‘El pequeño vampiro’, Angela Sommer-Bodenburg-ena • **FILM BAT:** ‘El protegido’ • **MUSIKA TALDEA:** La Polla • **KIROL TALDEA:** Reala

TIRABIRAKA/ Oihan Vega



ZAHARREN ETXETIK



Informatika gela 2000ko ekainean jarri zen martxan San Joxepen, eta ordutik oso harrera ona izan du bazkideen partetik. E.M.

Informatika ikastaroak izango dira San Joxepen datorren astetik

EDU MENDIBIL

Datorren astean abian jarriko dira San Joxepe elkartearen urteko lehen hiruhilekoaren informatika ikastaroak. Antolatatu izan diren bakoitzean, erantzun ezin hobea izan dute San Joxepeko bazkideen partetik.

La Caixarekin egindako akordioari esker, 2000ko ekainean jarri zuten martxan San Joxepe elkartearen informatika gela. Aipatutako gelan hamar PC ordenagailu dira sarean, elkarrekin konektatuta, eta bertan ematen dituzte noizean behin informatika ikastaroak. Astelehenean, hilaren 28an, informatika hasiera ikastaroa hasiko da, eta martxoaren 27ra arte, astelehenean eta eguaztenetan izango dira klaseak, 10:30etik 12:30era. Oinarriko kontzeptuak izango dituzte aztergai 15 euroren truke.

Interneteko sakontze ikastaroa, berriz, urtarrilaren 29tik otsailaren 21era arte egingo da,

martitzenetan eta eguenetan 10:30etik 12:30era. Ikastaroan parte hartzeko 9 euro ordaindu beharra dago.

HARRERA ONA BAZKIDEEN PARTETIK

Otsailean hasiko dira beste bi ikastaroak: alde batetik argazkien tratamenduari dagokiona

Erretiratuak, informatizatuta

Hobekuntza plangintzan murgilduta, bere bazkideei eskainitako zerbitzuen kalitateari garrantzi handia ematen diote San Joxepen. Teknologia berrien indarrak oharturik, erretiratuak ez ziren atzean geratu nahi izan, eta hori dela eta informatika gela zabaldu zuten. Besteak beste, Internetek zale ugari ditu San Joxepeko erretiratuaren artean.

(otsailaren 5etik martxoaren 19ra emango dena) eta bestetik Excel programari buruzkoa (otsailaren 7tik martxoaren 21era bitarteko eguenetan, 17:00etatik 19:00etara). Bietan, izena emateak 9 euro balio du. Lehenbizikoan argazkiak zelan eskaneatu eta modu digitalean zelan tratatu erakutsiko da martitzenetan, arratsaldean, 17:00etatik 19:00etara.

Era berean, otsailaren 1etik martxoaren 22ra bitartean, egubakoitzetan, informatika gela zabalik izango da 10:30etik 12:30era, bazkideei edozein zalan-tza argitu eta informatika kontuetan sakondu ahal izateko.

Informatika gela zabaldu zenetik hainbat ikastaro antolatu izan dira San Joxepen, eta bazkideek interes handia azaldu dute horrelakoetan. Jesus Mari Sebal dugu informatika gelako arduraduna. Bere hitzetan, "ikastaro bakoitzean dozena bat lagun egon dira, eta ikastaroak ez daudenean ere bazkideak etortzen dira bere lantxoak ordenagailuz egitera. Harrera oso ona izan du informatika gelak".

LABUR

Iruñeko planetarioa bisitatzeko irteera egingo dute San Joxepekoek otsailaren 7an

San Joxepe elkarteak Iruñea eta bertako planetarioa bisitatzeko irteera iragarri du datorren otsailaren 7rako. Esan bezala, irteeran parte hartzen dutenek hiriaren bisita panoramiko egingo dute lehenbizi, eta jarraian planetarioa ikusteko aukera izango dute. Izena emateko epea otsailaren 1era arte izango da zabalik. Interesatuak Euskadiko Kutxan eman dezakete izena (23 euro).

1927an jaiotako bergararrek diamantezko ezteiak ospatuko dituzte zapatuan

1927an jaiotako bergararrek diamantezko ezteiak ospatuko dituzte zapatuan, urtarrilaren 26an. Lehenbizi eguerdiko 13:30ean elkartuko dira frontoian txikiteoa egiteko eta ondoren, 14:30ean, bazkaria izango dute Zumelaga jatetxean. Bazkalostean uda partean irteeraren bat egiteko aukera aztertuko dute.

Iazko bigarren seiheleko bazkideen bilera astelehenean San Joxepe elkartearen

Iazko bigarren seihelekoan San Joxepe elkartearen bazkide egin zirenen bilera egingo da astelehenean, hilak 28, elkartearen, 17:00etan. 2001eko bigarren seihelekoan 34 izan ziren bazkide berriak. San Joxepeko hobekuntza plangintzaren barruan, asteleheneko bilerraren helburuetako bi bazkideak elkar ezagutu eta elkartearen funtzionamenduaren berri ematea da.

ZAHARREN AHOTIK

Gregorio Manso


ERRETIRATUA

Gregory Man izen artistikoarekin Ariznoa diskotekan hainbat kantu emanaldi eskaini zituen gaztetan. Gaur egun 68 urte ditu eta erretiratuta dago.

Gregorio Manso ala Gregory Man?


1960ko hamarkadaren hasieran-edo bailara mailako kantu txapelketa egin zen Arrasateko Idoia diskotekan, eta Peña Kikiokoen, izen artistiko bat jartzearen, Gregory Man izena jarri zidaten orduan. Gaur hilez gero ere, askok eta askok izen horrekin ezagutuko nindukete. **Zelako kantuak abesten zenituen?**

Antonio Machinenak, mexikanadak, boleroak... denetarik. Gaztetan abeslari amorratua nintzen, eta Ariz-



noa diskotekan ere askotan abesten nuen. Sekulako giroa egoten zen astebukaeretan Ariznoan. **Egunero zatoz San Joxepe-
ra.**

Bai, hemen bazkaltzen dut egunero. Primeran. Arratsaldeetan berriz Txarrantxanera joaten naiz, kartetan egitera.



Ur-bide
ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

GURIDI altzariak


Era guztietako
altzariak

Artekalea 8. BERGARA
Tel. 943 76 31 02

INFERNUKUA TABERNA

Masterreka 23. BERGARA. 943 76 18 49

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein auzotako eliz atarian irakur daiteke idatzi hau?

BERGARAKO ZUHAITZAK

Izei gorria

(Picea abies)

MAITANE ARIZABALETA

Luzeran, 50 m edo gehiago dituen zuhaitza. Enborra zuzena da, oinetik hasita adar horizontalez hornituta. Azala gris-gorrixka du, gaztetan ezkatatsua eta gerora zartatua. Hostoak, azikula ziztatzaileak dira, kolore berde bizi eta ilunekoak. Kono arrak zintzilikaturik daude, emeak, aldiz, tente, eta zilindrikoak dira. Ia lurzoru mota guztietan hazten den espeziea izan arren, ez zaizkio komeni haize bortitzen mende dauden lurzoruak, izeiaren sustrai sistema oso azalekoa baita.

Herri eta hiriguneetako parke eta lorategietan erraz ikus daitekeen espeziea da. Bergaran, Usondon eta Arrizuriagan ikus dezakegu.

Egurra oso kalitatea onekoa da, kolore argia du eta lantzeko erraza da. Erabilera anitz ditu zurgintzan, ebanisterian, papergintzan,...eta aipatzekoa da sokadun musika tresnen erresonantzia kutzak egiteko ere estimazio handiko egurra izan dela, esate baterako, Stradivarius biolinak egiteko.

Gabonetako zuhaitz bezala ere ezaguna, Gabonetan apaingarri gisa jartzeko ohitura dago.

"Musika tresnen erresonantzia kutzak egiteko estimazio handiko egurra du"



ARGAZKILARIA

GALDEDEBALDE

1.

Erromeria erraldoia izango da Bergaran maiatzaren 11n. Ze izen jarri diote?

- A/ Denok dantzara.
- B/ Triki festa.
- C/ Dantzara plazara.

2.

Noiz zabaldu zuten San Joxepe elkartearen informatika gela?

- A/ 2002ko urtarrilean.
- B/ 2001eko irailean.
- C/ 2000ko ekainean.

3.

Deba Arroko pilota txapelketan, zein da kadete mailako Bergarako bikotea?

- A/ Salegi-Altuna.
- B/ Agirre-Uribarren.
- C/ Muguruza-Gutiérrez.



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

NIKOLAS ARZELUSentzat izan da 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Nikolas! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Ibargarain** / Galde debalde: **1-A, 2-B, 3-B.**



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Urzantesol ekilore olioia

Litro bateko botila

0,90 €

150 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37




Irala 3. Tf. 943.76.12.35
Matxiategi 34. Tf. 943.76.23.37
BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09



943 76 48 08.
Zubieta 26
BERGARA

ile apaindegia

edertze gela

disdira

Masterreka, 7. BERGARA
Tf. 943 76 00 55



BERGARA
Beñat Uribesalgo
Urtarrilaren 25ean 3 urte. Zorionak! Etxekoak; batez ere, Karmele.



BERGARA
Jone Ibarra
Urtarrilaren 30ean urtebete. Urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Itsaso Goenaga
Urtarrilaren 30ean 5 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Ander Gallastegi
Urtarrilaren 26an 5 urte. Urte askotarako! Jokin, Asier eta gurasoak.



BERGARA
Asier Odriozola
Urtarrilaren 27an 7 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Martin Casado
Urtarrilaren 29an 79 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



ELGETA
Adrian Gorostiza
Urtarrilaren 31n 9 urte. Urte askotarako! Eskolako lagunak.



BERGARA
Ibon Etxabarri
Urtarrilaren 29an 4 urte. Urte askotarako! Etxekoak, Julen eta Eider.



BERGARA
Markel Garmendia
Urtarrilaren 24an 4 urte. Urte askotarako! Aita eta ama.



BERGARA
Alexander Narvaez
Urtarrilaren 21ean 18 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Erik Polanco
Urtarrilaren 23an 9 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Jokin Alfaro
Urtarrilaren 24an 5 urte. Urte askotarako! Peio eta gurasoak.



BERGARA
Peio Alfaro
Urtarrilaren 30ean 9 urte. Urte askotarako! Jokin eta gurasoak.



BERGARA
Unai Irizar
Urtarrilaren 29an 6 urte. Urte askotarako! Iosu, Leire eta etxekoak.



BERGARA
Nerea Sanz
Urtarrilaren 22an 5 urte. Urte askotarako! Aitona eta amona.



BERGARA
Ane Sanz
Urtarrilaren 22an 5 urte. Urte askotarako! Aitona eta amona.



BERGARA
Andoni Mujika
Urtarrilaren 22an 5 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Jon Patxi Aiestui
Urtarrilaren 25ean 12 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta Izaskun.



BERGARA
June Igarza
Urtarrilaren 31n urtebete. Urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Ainara Rubio
Urtarrilaren 28an urtebete. Zorionak! Gurasoak eta Aritz.



BERGARA
Aritz Rubio
Otsailaren 4an 5 urte. Zorionak! Gurasoak eta Ainara.



BERGARA
Maddi Txintxurreta
Urtarrilaren 28an 7 urte. Urte askotarako! Maite eta gurasoak.



BERGARA
Margarita Iñurrategi
Urtarrilaren 25ean urtebetetzea. Urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Leire Zabaleta
Urtarrilaren 30ean 14 urte. Zorionak! Gurasoak eta koadrilakoak.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxungo

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak
eta senitartekoak
BERRIGARAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaiozu ezusteko ederra!
Doan!

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
 Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
 Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu,
 zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.
 Argazkia, urtebetetze eguna baino
 bi aste lehenago ekartzea komeni da.

MILA GARMENDIA



oleo-erakusketa urtarrilean
 NAHIKARI taberna. Masterreka 20. Bergara. Tf. 943 76 57 71

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
 BERGARA
 Tf. 943 76 56 62

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
 Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



Silvestre Muñoz, s.l. pinturak

Pintura-lanak orokorrean
 •
 Pintura industrial
 •
 Zoru arinak:
 sintasolak, moketak...

610 25 99 82
 610 25 40 37
 943 76 24 11
 Amillaga 1, 10 pabilioia.
 20570 BERGARA



HIRU BIDE
 JETETXEA-BENTA

Urteaga 9
 BERGARA
 Tf. 943 76 18 45

Ganbara

TABERNA

**Heure erara
ibiltzeko!**

Irala z/g.
 BERGARA
 Tel. 943 76 55 75

ezpeleta

Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta
egoitzetarako
mahai-zapi eta
industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara
 Tf. 943 76 28 77
 Tf. eta faxa: 943 76 17 09

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK


Laster izango gara zurekin

Kiromasajea •
Reflexologia •
Solariuma •



• Hidromasajea
• Algekin eginiko estalkia
• Kirol masajea

Dei ezazu **646 50 00 29** telefonora ordua eskatzeko



KORTA-ZAR Txokolategia

OHARRA BEZERO GUZTIOI

Berritze lanak direla eta itxita egongo da
urtarrilak 28tik otsailaren 1era.

ORDUTEGI BERRIA:

Astelehenetik ostegunera:

11:00etatik 15:00etara
17:00etatik 23:00etara

Ostiraletan eta igandeetan:

11:00etatik 15:00etara
17:00etatik aurrera

Larunbatetan:

10:00etatik 15:00etara
17:00etatik aurrera

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko urtarrilaren 25a / 98. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea, 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Akiñabeiko errota berreskuratu dute eta ikusgai dago nahi duten herritarrendako


AINTZANE IRIZAR

Duela zortzi urte erosi zuen Jose Mari Iturbek Akiñabeiko errota. Asteburu luzeak pasatu ditu hura txukundu eta konpontzen, eta errota martxan ere jarri du. Domekan, irteera egingo dute Arrolakoek errota ikustera joateko. 09:00etan irtengo dira, plazatik.

Egoera kaskarrean zegoen Akiñabeiko errota Jose Mari Iturbek erosi zuenean. Haren helburua zen goitik behera txukundu eta errota martxan jartzea. Zortzi urte hauetan asteburu ugari pasatu ditu horretarako lanean, eta azkenean lortu du hasierako helburua.

URIK GABEKO ERROTA

Ez ei da batere erraza errota bat erosteko aukera topatzea. Akiñabeiko errota erosteko aukera izan zuenean, hortaz, ez zuen bi aldiz pentsatu, nahiz eta nahia- go izango zukeen urarekin martxan jartzeko aukera emango zion errota bat erostea. Akiñabeiko errotarako ura 500 bat metro gorago eraikitako biltegi batetik ekar- tzen zuten jatorrian, auzoko itur-



AINTZANE IRIZAR

Errotak zela funtzionatzen duen erakutsiko die Jose Mari domekan Arrolakoekin bisitan joaten direnei.

buru bateko ura, hain zuzen ere; orain, baina, herrirako ura banatzen da iturburu horretatik, eta ez dago ur hori errotarako erabiltzeko aukerarik. Hala ere,

horrek ez dio arazo handirik ekarri Jose Mariri. Motor batekin, argindar generadore batekin jartzen du martxan errota. Esan bezala, goitik behera konpondu

du errota Iturbek. Teilatu zati bat erorita zeukan, barrualdetik ere nahiko hondatuta zegoen, errota bera ere egoera txarrean zegoen... Teilatua guztiz kon-

“Inguruko zortzi baserriren artean egin zuten errota, argindarra sortzeko”

pondu du, errota ere piezaz pieza desmuntatu eta dena berregituratu behar izan du. Horrenbeste denbora eta gero, baina, pozik dago eta merezi izan duen sentsazioarekin.

AUZOTARREN ERROTA

Zortzi baserri egin zuten errota hori, denena zen, ez zeukan ugazaba bakarra. Euren helburua zen argindarra sortzea. Turbina bat jarri zuten horretarako. Baina errota ere jar zezaketela-eta, hori ere jarri egin zuten. Honako baserri hauek jasotzen zuten Akiñabein sortutako argindarra: Azkarate, Elutsa, Jauregi, Goenaga, Goitia, Laskurain-aundia, Lizarriturri eta Lamariano baserriak. Urte askoan bertan behera lagata egon da errota, Jose Mari hartu zuen arte.

HERRITARREN HITZA / Beñardo Kortabarria • Kazetaria

Ikurrina oreatzen

A itortu behar dut ez nuela gogoratzen, baina *Goienkaria*-k gogorarazi zidan euskaldunon ikurrina legeztatu zeneko 25. urteurrena. Artikuluak hunkitu egin ninduen, hurrengo egunean ikurrina balkoira ateratzea erabaki nuen. Izan ere, abertzaleok hain gutxitan bildu gara guztiontzako zerbaiten alde zintzotasunez eta tinkotasunez lan egiteko... Ze arrai! Horrelakoak ospatu egin behar ditugu! Pentsatu eta egin. Larunbatean jaiki eta mutikoaren laguntza paregabearekin ikurrina dotore-dotore ezarri nuen balkoiaren erdi-erdian.

“Jendeak pentsatuko dau Sansebastian bezpera dala-eta jarri dozula”, esan zidan emazteak. Donostian bageunde izan zitekeela baina Antzuolan... ez nuela uste erantzun nion. Gainera, *Goienkaria*-ren azalean eta barrualdeko bi orrialdetan argitaratu zuten artikulua medio, etxe aurretik igarotzen zen orok lotura erraz egingo zuelakoan nengoan. Bi hitzetan: ez nintzela ikurrina jarriko



“Ikurrina balkoian jartzea erabaki nuen larunbatean”

laguna hurbildu zitzaidan: - Ikusi juat ikurrina hirean. Gaur zerbait dok ala? Beste batek ere galdetu jostak, ikusi

zuen bakarra izango.

Umeein goizeko kalejira eginda, eguerdian bazkaltze- ra bueltatu nintzen- nerako argi neukan ez nuela ez leiho eta balkoietan ikurrin askorik ikusiko. Reala eta Alavesen arteko derbya ikustera irten nintzen arratsaldean. Surpen nengoela

ei hau-eta ikurrina jartzen.

Ikurrina legeztatu zeneko 25. urteurrena zela azaldu nion. - Ah! Ba badakik zer erantzun jaten -berak- beharbada ikurrina garbitu eta lehortzeko eskegi egingo huela.

Akabo nirea! Ondorioak: 1) Edo *Goienkaria* ez da uste den beste irakurtzen. 2) Edo deialdi ofizialik ez badago jendeak paso egiten du. 3) Edo ikurrinarena bezalako kontuak ez zaizkigu batere inporta. 1) eta 2) arrazoiekin geratzen naiz. Eta ez ni bakarrik, nik dakidala gutxienez beste batek ere, egun hartan ikurrina garbitu eta eskegi egin baitzuen.

LABUR

Zine eskaintza domekero osoko bilkuren aretoan

Urte hasieratik udaletzeko pleno aretoan eskaintzen dituzte domekero filmak. Izan ere, Gizarte Etxeko lanak direla-eta, zine aretorik gabe geratu da herria. Udalak, baina, behin-behineko areto bat topatu nahi izan du. Parrokiako lokalean hasi ziren pelikulak eskaintzen, baina, horretarako toki aproposa ez zela-eta, aurrerantzean osoko bilkuren aretoan eskainiko dituzte filmak. Etzi, domekan, *Charlie eta Louise* filma eskainiko dute, 16:30ean.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA/LARRIALDIAK

DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Medikua	943 76 62 23
Praktikantea	943 76 63 80
Udaltzaingoa	943 76 62 46
Ertzaintza	943 76 53 40

UDALA

Udaletxea	943 76 62 46
Liburutegia	943 76 60 65

BESTELAKOAK

Idolaz	943 78 60 12
Herririkastetxea	943 76 62 68
Jubilatuena elkartea	943 76 62 71
Abadetxea	943 76 64 16
Anekarr (Kontxi)	943 78 70 65
Taxiak:	
Antonio Fernández	669 15 65 40
Jesus M. Fernández	607 31 85 60

MEZAK

ANTZUOLAKO PARROKIA

Lanegun eta zapaueetan: 19:30
Domeka eta jaiegunetan: 09:00, 11:30

UZARRAGAKO PARROKIA

Domeka eta jaiegunetan: 10:00

OHARRAK

ARROLAREN IBILALDIA

Domeka goizerako irteera bat antolatu dute Arrolakoek. Herrian zehar egingo dute ibilaldia. Plazatik irtengo dira goizeko 9:00etan, eta San Blaseko ermita aldera abiatuko dira. Handik, Madariaga baserritik pasatu eta gero, Trekutzera helduko dira. San Martzialera jaitsi ondoren, Akiñabeiko errota ikustera joango dira, eta errota martxan ikusteko aukera izango dute.

ESKI-TRABESIA BERTAN BEHERA GERATU DA

Hemendik bi astera, otsailak 9 eta 10eko asteburuan, hain zuzen ere, eski-trabesia irteera bat egitea aurrez ikusten zuten eskualdeko mendizale taldeek. Eta horrelaxe jakinarazi zuen Arrolak ere urte hasieran argitara eman zuen urteko egutegian. Azkenean, baina, bertan behera laga dute irteera.

BASERRIZBASERRI/ Lapatza



NEKAZARITZA BIOLOGIKOA Irimegi barrena auzoan dago Lapatza, herrigunetik bertan. Lehen aipamena 1391koa den arren, orain ezagutzen duguna XVIII. mendean eraiki zuten. Aurrealdean puntu-erdiko hiru arku dituen herriko baserri bikain bakarra da. Garai batean, ba omen zegoen Lapatza errota ere, gaur Etkezuri dagoen tokian. Pedro Perez Zumeta-Lapaza bertako seme bat, Aljerren hil zen. Goleta baten zihola atxilotu eta Constantinoplara eraman zuten. Handik Aljerrera bidali eta bertan hil zen 1581. urtean. Baserri ingurua negutegiz beteta dago, nekazaritza biologikoa lantzen dute. /AINTZANE IRIZAR /ITURRIA: IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZEN 'ANTZUOLAKO BASERRIAK ETA ERROTAK'

BOTEPRONTOAN/ Aitziber Goñi • Zinemako arduraduna

“Euskarazko pelikula ahalik eta gehixen eskeintzen saiatuko gara aurten, horixe da gure erronkia”

Zinemako arduraduna da Aitziber, Alaitz Jauregirekin batera. Lau bat urte darama lan horretan. 23 urte dauka eta informatikari moduan lan egiten du Antzuolan bertan.

Zelatan suertatu zitzaizuen zinemako arduradun izateko aukera?

Gure aurretik ezagun batzuk zebizten lan honetan, eta euren bittartez euki neban lan honen berri.

Zein da zuen lana?

Pelikulak geuk erosten dittugu; pelikula bakoitzerako kartelak ere egin bihar izaten dittugu. Egunian bertan, berriz, orain, osoko bilkuren aretuan, jarlekuak eta monitoria jarri

bihar izaten dittugu eta lehiatzen sarrerria kobrau.

Zeren arabera aukeratu dituzue pelikulak?

Alde batetik, pelikula ezagunak aukeratu saiatzen gara; bestetik, euskarazko pelikula ahalik eta gehixen eskeintzen saiatuko gara aurten. Aspaldixan gebitzen euskarazko pelikulak eskeini nahixan, baina ez da errega. Aurten, azkenian, Durango azokan mordoxka bat erosi giñutzen, eta esandako moduan, euskarazko pelikula dezente eskeini dittugu. Horixe da aurtengo gure erronkia.

Zinema gustatuko zaizu, ezta?

Zinera jutia asko gustatzen jat, baiña, bestela, ez pentsau oso zalia naizenik be, ez naiz sekula



mundu horretan asko mobidu.

Gustuko pelikula bat?


“La mandolina del capitán Corelli”.

Gizonezko eta emakumezko aktore bana?

Joseba Apaolaza eta Elena Irureta.

Bide batez, eta Oinarineko kide zarenez, zer moduz doaz karnabaletarako entseguak?

Aurten berandu hasi gara; egia esan, urtero hasi izan gara berandu, baiña aurten sekula baino beranduago hasi gara esaiuekin. Dana dala, Lantzeko ihauterietako dantzak egingo dittugu, eta ez dira oso dantza zailak; hortaz, danak ondo irtengo dabela espero dogu, eta ia jende askok parte hartzen daberen.



Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak

- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBAren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

ANTZUOLA

Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Billegia: 943 78 70 40

AITZ-GARBI



taberna
jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko urtarrilaren 25a / 84. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea, 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Eguenean, *Elgeta, sasiaren sustraiak* liburuaren aurkezpena

OXEL EROSTARBE

Urtarrilaren 31an, iluntzeko 19:00etan Koldo Izagirre eta Joseba Tapia gerturatuko dira herriko liburutegira Elgeta trikitilari handiaren liburu eta pieza batzuk aurkeztera. Kultura Batzordeak, Trikitilari Elkartearen laguntzarekin antolatu du ekitaldia.

Koldo Izagirrek Elgeta trikitilariaren inguruan egindako datu bilketa handi baten emaitza da *Elgeta, sasiaren sustraiak*.

Datorren egunean liburu hau aurkeztuko du Pasaiako idazleak liburutegian. Liburuan, Jazinto Rivas Sanz "Elgeta" trikitilariaren bizipenak kontatzen dira. Trikitilari mitikoari buruzko datu zehatzenak ematen saiatu da Koldo Izagirre, eta lehendik zeuden hainbat uste okerrak direla argi geratu da.

Jazinto Rivas Sanz trikitilari handia Goimendiko Intxuzabal baserrian premutzako maiorazkotzako hartua izan zen. Hortik datozkio trikiti munduan ezagun egin zuten bi izenak, Intxuzabal eta Elgeta. Bergara eta Eibarren Intxuzabal deitzen zuten, eta Eibartik kostalderantz, Elgeta.

Liburuarekin batera, CD bat ere batu dute Elgeta trikitilariaren grabazio batekin. Hortaz, trikitilariaren doinuak ezagutzeko aukera ere ematen dute.

JOSEBA TAPIA ERE ETORRIKO DA

Joseba Tapiak 36ko Espainiako gerrari aipamen egiten dioten Euskal Herriko kanten bilduma kaleratu berri du: *Agur Intxorta maite*. Trikitilari ziar zegoen 36ko gerrari buruzko abestiren bat egon behar zuela. Bazekien gainera, Jazinto Rivas Elgeta trikitilari Eibarko milizietan ibili zela. Joseba Tapia Elgetan izango da egunean eta Elgetaren zenbait pieza musikatuak ditu bertan batzen direnek entzuteko.

Gaurko trikitilariak miretsi izan dute Elgeta. Batetik trikitilari maisuen maisu izan zelako, eta baita zuen trebetasunagatik ere, soinu bakarrek zuzi tonu desberdin jotzeko gai zen eta.



EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEA

Santo Tomas egunez. Elgeta, Sakabi eta Auntxa trikitilari lagunen artean.

*Datu zehatzenak
batu ondoren,
zenbait uste okerrak
direla argi geratu
da liburuan*

*Goimendin,
Intxuzabal
baserrian morroi
izan zen Elgeta
trikitilari mitikoa*

*Aurkezpenean
Joseba Tapia ere
izango da Elgetaren
garaiko zenbait
pieza musikatu*

KOLDO IZAGIRRE / IDAZLEA



"Esan da, Elgetak pelikula egiteko bizia izan zuela, eta egia da"

Elgeta, sasiaren sustraiak liburu aurkeztuko diguzu, zein harreman egon zen Elgeta trikitilari eta Elgeta herriaren artean?

Nik dakidala behintzat, ez zen harreman handirik egon. Baina bere baserriak Elgeta zeukanez hurbilen, ba izen huraxe eman zioten Eibarren eta inguruetan.

Horrek esan nahi du berari ez zitzaioela axola, maite zuela Elgeta izena, berak ere hala aurkezten baitzuen bere burua maiz. Elgetan, sortu izan ote da herriaren izena Elgetak beste zabaldu duenik?

Bere inguruan mito ugari sortu dira, zer dela eta?

Bai, mito handi bat da Elgeta, eta hainbat asmazio egin

dira berari buruz... Logikoa da: sasikoa zen, han eta hemen ibili zen, gerran ere bai, kartzelan gero, frankismoan baserri baserri ibili zen trikitia irakasten, ez zuen familiarik osatu, hil ere ia eskeko bihurtua zela hil zen, inork ez zekiela... Esan da pelikula egiteko moduko bizitza izan zuela, eta egia da.

LABUR

Otsailaren 4an Santa Ageda eskean

Otsailaren 4an, eguerdiko 14:30etatik aurrera Santa Ageda eskean aterako dira eskolako haurrak. Batuko duten dirua Gabonetan atera zutenari gehituko diote, horrela, aratusteak direla eta otsailaren 8an egingo duten merienda ordaintzeko.

Santa Ageda bezperan abes-tera ateratzea ohitura izan da Elgetan. Hurrek astelehenean ekingo diote kantuak gertatzeari, eta horretarako makilak eraman beharko dituzte eskolara.

Mozorroak gertatzeko ordua iritsi da

Eskolako hurrek eta Gazte-
txeak otsailaren 8an ospatu-
ko dituzte aratusteak. Gazte-
txeak afaria eta kontzertua
antolatu ditu. Afaria Bolato-
ki tabernan izango da. Menua,
entsaladak, paparrak edo
eskalopeak eta postreak osa-
tuko dute eta Haizea tabernan
eta Gaztetxean eman daiteke
izena. Gauean Mal de ojo tal-
dearen kontzertua izango da.
Eskolako haurrak ere egun
horretan mozorrotuko dira.
Arratsaldean jokoak eta
merienda izango dituzte.

Jaietan haurren danborrada egiteko asmoa

Hasi dira ekainaren 27, 28 eta 29
eta 30 artean izango diren
Ferixa Nagusixak gertatzen.
Aurten ez dugu nagusien dan-
borrada izango. Horren ordez
jaietako zapatu arratsaldean
haurren danborrada antola-
tzea da asmoa. Hamasei urte
arteko neska mutikoei har-
tu dezakete parte bertan.
Otsailaren 16an, kiroldegiko
gimnasioan izango da aurre-
neko entsegua. Egun honetan
eman beharko dute izena dan-
borradan parte hartu nahi
dutenek.

KIROLA

Intxorta saskibaloit taldea Kopako finalaurrekoetarako sailkatu da Eibarren

O.E.

Domeka goizean Maixa tabernari 50-38 irabazi eta gero, Kopan aurrera egin dute Intxorta taldekoek. Ligan hirugarren dira, eta jokatu dituzten sei partiduetatik bi galdu egin dituzte. Aurtengoan ere, Liga eta Kopa irabazteko aukerak dituzte.

Aurreko urteetan, Eibarko Saskibaloit Txapelketa nahiko erraz irabazi izan dute Intxorta saskibaloit taldekoek. Aurtengoan, ordea, ohi baino zailtasun handiagoak ditu taldeak partiduak irabazteko. Ligan jokatu dituzten sei partiduetatik bi galdu egin dituzte, eta, ondorioz, sailkapenean hirugarren dira.

Kopa txapelketa, ordea, beselako emaitzak lortu dituzte Elgetako mutilek. Domekan Maixa tabernari irabazi eta gero, finalaurrekoetarako sailkatu dira. Otsailean jokatu dira finalaurrekoak, eta orain

dik ez dago erabakita euren aurkaria zein izango den.

DEBARROKO TXAPELKETA, BIKAIN

Martitzenean hasi zuten Ozkarbi taldeko pilotariak Debarroko Pilota Txapelketa. Elgetarrek eibartarren, elgoibartarren eta debarren taldeen aurka neurtuko dituzte indarrak.

Lehenengo partiduak Debako pilotarien aurka izan zituzten Ozkarbi taldekoek. Nagusien mailan 22-1 irabazi zuten Arantzetak eta Arrietak. Gazteen mailan, bestalde, 22-7 irabazi zuten Txurrukak eta Alberdik. Eta kadeteen mailan, azkenik, Atxotegik eta Garatek 22-9 galdu zuten.

Pilota, ordea, ez partidengatik bakarrik mintzagai da gure herrian. Izan ere, Ozkarbiren eta Udalaren artean sinatu beharreko hitzarmenaren inguruan zurrumurru asko entzun dira. Oraingoan, Udalak ez dio Ozkarbiri hitzarmenik aurkeztu, aurkeztuko dion hitzarmena Gobernu batzordean landu behar da-eta.



IGOR ARIZMENDIARRIETA

Kopako finalaurrekoetarako sailkatu ziren domekan Intxorta saskibaloit taldekoak.

KULTURA

Neska-mutiko ugari dantza ikastaroan

O.E.

Dantza Taldeak antolatutako euskal dantzen ikastaroan herriko 50 neska-mutikok eman dute izena. Martitzenean eta eguaztentean izaten dira entseguak. Asentzio egunean eta jaietan dantza egiteaz gain, herritik ere irten nahi dute Dantza Taldekoek.

Aurreko astean hasi ziren herriko neska-mutikoak euskal dantzak ikasten.

Aurten, 50 ume inguruk eman dute izena Kultura batzordeak antolatutako ikastaroan. Txikie-

nek hiru urte dituzte eta nagusienek, hamahiru.

Txikienek korroan egiten diren dantzak ikasten dihardute. Neskek Xoxo Dantza, Arku Dantza eta Arratera Begira ikasiko dituzte, eta mutilek Txangarren-gua, banakoa eta binakakoa.

Iaz, Asentzio egunean, Ferixa Nagusiko jaietan eta Eibarren egiten zen Galiziaren egunean izan zen Elgetako Dantza Taldea.

Aurten, deitzen dieten lekutara joateko gertu daude. Izan ere, umeei ilusio handien egiten die izaten da ikastaroetan ikasitako dantzak jendearen aurrean erakustea.



O.E.

Txikienek korroan egiten diren dantzak ikasten dihardute.

IRAKURLIAREN TXOKUA

ELGETAN ERE EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA

Euskal Herriko herri eta txoko guztietan bezala, Elgetan ere Euskal Presoak Euskal Herriratzearen aldeko kontzentrazioak egingo dira hilabete guztietako azken barikuetan. Gabonetan egin genuen bezala, jende pilotxoa bilduko gara ziur gaude.

Euskal Herrian horrenbeste urtetan zehar sufritzen dugun egoeratik irteteko eman beharreko pauso garrantzitsu hau lehenbailehen eman dadin eskatzeko, presoak jasaten duten egoera larria salatzen eta behingoz gatazkari benetako irtenbidea emateko eskatzeko bilduko gara.

Esan bezala, Euskal Presoak Euskal Herriratzearen alde zaudeten denok gonbidatuta zaudete ostiral honetan eta hil bukaerako ostiral guztietan arratsaldeko 8etan herriko plazan egingo diren kontzentrazioetara.

Denon artean lortuko dugu. Euskal Presoak Euskal Herrira!

ELGETAKO BATASUNA

OHARRAK

OLIO BILKETA

Hileko azken barikua guztietan moduan, olio bilketa egingo du Maya ingurumen taldeak gaur, hilak 25. Arratsaldeko seietatik zazpietara izango da olio bilketa.

GAZTETXEKO BATZARRAK

Gaztetxeako batzarrak egunez aldatu dituzte. Aurrerantzean aste batean barikuan eta bestean zapatuan egingo dute asteroko batzarra. Aste honetakoa bihar izango da, arratsaldeko hiru eta erdietan. Datorren astekoa barikuan izango, arratsaldeko sei eta erdietan. Batzarrak irekiak dira eta parte hartzea bultzatu nahi dute gaztetxeakoek.

PRESOEN ALDEKO BILKURA

Hileko azken barikua denez, gaur, hilak 25, bilkura izango da plazan, iluntzeko zortzietan, *Euskal Presoak Euskal Herrira* lelopean. Ibarreko beste herrietan moduan, hileko azken barikuan presoek eskubideen aldeko bilkura egiten jarraituko dute Elgetan ere.



RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

BOLATOKI taberna-jatetxea



- Astean zehar eguneko menua
- Asteburuetan menu bereziak eta sagardotegiko menua
- Pintxoak, ogitartekoak eta errazioak

Artekale 2, Elgeta. 943 76 82 84

ERRETRATUZAHARRA

Bergarako
Lokatzako
gaztetxoak

Lokatzako Ziklismo Eskolak zilarrezko ezteiak ospatu zituen joan den urtean. Zalan-tza barik, urte hauetan guztietan lan aipagarria egin dute Lokatzakoek herrian txirrindularitza bultzatzeko. Mutiko askok eta askok jantzi dute Lokatzako maillota. Eta hasieran bezalaxe, Lokatzako arduradunek tinko jarraitzen dute. Hemendik gutxira, aurtengo denboraldiari ekingo diote. Era berean, hainbat proba antolatzen du Lokatzak denboraldian. Besteak beste, iaz, gazte mailako Gipuzkoako Itzulia ekarri zuten herrira, eta 2004. urteko Euskadiko Itzuliaren lehenbiziko etapa Bergaran jokatzeko baimena eman berri diote Lokatzakoei. Gauzak ondo egiten dituzten seinale.

Oraingo asteko argazkia 1983. urte ingurukoa da. Erretratuan agertzen diren gaztetxoek bigarren urteko kadete taldea osatzen zuten garai hartan. Fermin Hernández zen haien entrenatzailea. Argazkia Zubiarte etxean ateratakoa da. Ezkerretik



eskumara: Aitor Rementeria, Jabi Zenitagoia, Josu Errasti, Jon Suinaga, Iñigo Igartua, Joseba Arietaleanizbeaskoetxea, Jose Antonio González, Iñaki Zenitagoia, Asier Aranguren eta Manuel Moral.

Argazkia: Lokatzako Ziklismo Eskola.

ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Artetxe etxea
eta inguruko
itxuraldaketa

Ortuibarren Artetxe etxea egon zen 80ko hamarkadaren hasiera arte. Etxea lehengo zezen-plazaren ondoan zegoen, eta duela hogeit bat urte erre zen. Ez dugu etxea erre zeneko data zehazterik izan, baina 1981ean izan zela uste dugu. Gaur egun etxebizitzak eraikitzen ari dira Artetxe zegoen tokian. Ibargarai kalean etxebizitza ugari egiten ari dira azken urteotan.



± 1975

Ortuibarren zegoen Artetxe etxea 1980ko hamarkadaren hasieran erre zen. Argazkia Roman Larrañagarena da (BUA).



2002

Ibargarai kaleak erabateko itxuraldaketa izan du azken urteotan. Artetxe etxea zegoen lur-sailean etxebizitzak eraikitzen ari dira.

Zumelaga
JATETXEA


60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

Zuri Beltz
margoak

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma
Pintura zerbitzu osoa
Moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara



Manufacturas LARRAÑAGA
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

•Seinaleztapena
•Jantziak

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.

600 2002ko urtarrilaren 7ko zozketa eurotako 5 erosketa-bono



Asier Lenisoro (Guria taberna), Antonio Maiztegi (Zapaterikua autozerbitzua), Ana Iztueta (Nerea lantzeria) eta M. Jesus Igartua (irabazleetako bat).



Sariak banatu dituzten komertzioak:

Nerea lantzeria
TBG asesoria
Zapaterikua autozerbitzua
Ziripot taberna
Guria taberna

Irabazleak:

M. Jesus Igartua
Fernando Hernandez
M. Dolores Gallastegi
Alex Osuna
5.a ez da agertu

Zorionak guztioi!

2001-2002 EUSKARA IKASTAROAK

MATRIKULA ZABALIK

ESKAINNTZA

Euskalduntze eta alfabetatze maila guztiak.
EGA.

BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 08:30-13:00
Arratsaldez: 14:30-18:30

MATRIKULATZEKO EPEA

Urtarrilaren 21etik
otsailaren 1era.

16 urtetik gorakoentzat.

**Bekatze sistema eta diru
laguntzak ditugu.**

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 • BERGARA • Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net







Sukaldeen berritzea.

Bainugelen berritzea.

Zeramikan azken berrikuntzak.

Etxea berritzea ondo atera dadin, Jakinan gremio guztiak eskaini eta koordinatzen dizkizuegu. Jakina, zurekin pentsatzen.



JAKINA

BAINUGELAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK
Bergarako FAGOR banatzaile bakarra

FAGOR
Sukaldeko altzariak

AENOR
Produktuen
zertifikazioa

6
URTEKO
GARANTIA

San Lorentzo Industri Pol., Amillaga 10. BERGARA.
Tel.: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.